

## Danni Leigh kantaria

Emanaldia egin zuen zapatuan Oñatin

KULTURA, 20-21



## Arrasate Hiria UDaren esku geratu da

Aloñari 1-0 irabazi zion eta Mondrarekin 0-0 egin zuen

KIROLA, 12-13

## Maika Aristegi

Aizkolariarekin berba egin dugu

KIROLA, 18



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko irailaren 4a • 3. urtea • 112. zenbakia • 0,90 euro

## Gurean diren ume sahararrei ere zapatuan bukatuko zaizkie oporrak

*Asteburuan agur merienda eta bazkaria egin dute Bergaran eta Arrasaten, hurrenez hurren*

### AGURTU ETA ANTOLATU

Agur jaia izan den arren, umeen itzulera prestatzeko zalantzak argitu dituzte harrera-familiek

### AZKEN ASTEA GUREAN

Zapatuan hartuko dute etxera eramango dituen hegazkina, batek izan ezik (barikuan du hegaldia)

### POZIK ETXERA

Oso ondo pasatu dutela esan arren, gurasoak ikusteko gogoz ere badirela aitortu dute

Uztail erdialdea ezker 21 neska-mutiko saharar dago gurean. Bergarako Bubisher eta Arrasateko Nubi elkarteek egin dute zubi lana. Egonaldiok umeendako oso onuragarriak dira. Besteak beste, osasun azterketak egiten dizkiete eta zaintza berezirik behar balute, hori eman. **5**



Bergarako Bubisher elkarteak San Martzial auzoan batu ziren zapatuan, bazkaritarako.

JOSETXO ARANTZABAL

## Urrezko Zeledoia Salaberrirendako

*Gasteizen musika arloan egindako lana eskertu nahi dio Udalak*

Egubakoitzean jasoko du Sabin Salaberrri musikari aramaioarrak Urrezko Zeledoia. Hain zuzen, Arabako Nazioarteko Abesbatzen Jaialdiko 25. urteurren kontzertuan jasoko du ikurra musikariak. Beste gauza askoren artean, Gasteizko Kontserbatorioriko zuzendari izan da. **26**

## Bruesa saskibaloit taldea

*Donostiarrek bulegoa jarri dute Eskoriatzan, bazkide berriak egiteko* **14**

## Andra Mari jaiak Gatzagan

*Eguenean hasi eta domekara arte ospatuko dituzte herriko jai nagusiak* **8**

## Gelma kasua artxibatu egin du fiskalak

Fiskaltzak artxibatu egin ditu Ignacio Lakuntza Arrasateko alkatearen kontra zabalduko diligentiak. Izan ere, Gelmako orubean etxeak eraikitzekeo sinatutako hitzarmenean egindako urrats guztiak legezkoak direla ondorioztatu du. **7**

# GEUREAN

- Eguaztenean hasiko da zerbitzua ematen Eskoriatzako haurreskola | 8
- Lagun Artea taldearen omenaldia egiteko batzarra bihar Aramaion | 8



Pello Urizar  
Eako Debagoieneko  
koordinatzailearekin  
aritu gara Nazio  
Batzarrari buruz | 6

**UME SAHARARRAK OPORRETAN DEBAGOIENEAN**

**OPORRAK BAKEAN PROGRAMA** | IBARREKO BUBISHER ETA NUBI ELKARTEEK AGUR JAIK EGIN DITUZTE ASTEBURUAN

## Zapatuan bukatuko zaizkie oporrak gurean izandako ume sahararrei

*Uztailaren erdialdea ezker 21 ume saharar daude gurean udako oporrak igarotzen*

*Bergarako Bubisher eta Arrasateko Nubi elkarteek agur jaiak egin dute asteburuan ume zein familiarekin*

Monika Belastegi

San Martzialen harrapatu genituen Bergarako Bubisher elkartearen bitartez Bergara eta Antzuolara etorri diren 7 eta 12 urte arteko bederatzi neska-mutikoetako zortzi, harrera-familiekin batera. Zazpi Bergaran egon dira eta bi, Antzuolan.

16:30etan egin zuten hitzordua, meriendatzeko asmoz batu ziren-eta. Iritsi bezain laster haima muntatu zuten ermitaren aurrean. Duela bi urte El Aayún-era egindako bisitaldian agindu zieten, Bibi, Rosa, Markos, Belen, Jone eta Miren elkarteak kideei haima egingo zietela. Esan eta egin. Aurtengo Aste Santuan El Aayún-era joan dira eta hantxe zuten haima zain. Zuria da kanpotik, baina kolore bizikoa barruko aldetik eta ikurrina eta Saharako bandera ere baditu bata bestearen ondoan, elkarkidetzaren eta errespetuaren adierazgarri.

San Martzialgo merienda oporraldia agurtzeko egin zuten eta baita ere umeen itzulera prestatzeko: "Familiak umeen itzulerarako izaten dituzten zalan-tzak argitzeko batu gara", esan ziguten Bubisherrekoek. "Eta, baita ere, bakoitzak oporrek nola igaro dituen jakin eta esperien-

tziak elkar trukatzeko", gehitu zuten. Elkarte sortu berria da Bubisher eta lehenengoz ekarri ahal izan dituzte umeak gurera. Pozik daude bederatzi ume ekarri ahal izan dituztelako eta "harrera-familien artean ere oso harreman ona sortu delako".

**ARRASATEKO NUBI ELKARTEA**  
Arrasatekoak domekan batu ziren. 14:00etan egin zuten hitzor-

dua, Udalako Uxarte jatetxean bazkaltzeko. 12 neska-mutiko etorri dira Nubi elkartearekin: 11 Arrasateko familiak hartu dituzte eta bat Oñatin egon da.

Bazkaritarako umeetako sei eta haien harrera-familiak batu ziren, Izan ere, "batzuk oraindik kanpoan daude, oporretan", azaldu zigun Agurne Juldainek, Nubi elkarteak kideak. Bergarako familiak bezala, norbere esperientziak jardun zuten bazkal orduan eta, nola ez, umeen itzulerarako prestatu beharreko gauzez.

**POZIK ETORRI ETA POZIK JOAN**

Pozik etortzen dira umeak baina joan ere pozik joaten dira familia zain dute han eta. Eta halaxe aitortu digute Mohamedek, Hafoudek edo Salehk: "Hemen ondo pasatu dugu; hondartza, igerilekua eta bizikletan ibiltzea

asko guastatu zaigu. Baina familia ikusteko gogoia daukagu". Hilaren 9an, datorren zapatuan itzuliko dira, hain justu umeak euren etxeetara. Hemen egon diren bitartean ondo baino hobeto ibili dira eta horren gustuko

**Pozik egon dira umeak, baina gustura itzuliko dira familiarengana**

**Osasun azterketa osoa egiten diete hemen umei, eta izan ditzaketen arazoei aurre egin**

ez izan arren, dentistarenena, sendagilearengana edota okulistarenena ere eraman dituzte harrera-familiak. Izan ere hori da umeak hona ekartzearen helburuetako bat, elkarteetako kideek azaldu duten moduan: "Errebisio mediko osoa egiten zaie umei eta izan ditzaketen arazoei neurria jartzen saiatzen gara, izan ere, han ez dute halako zerbitzurik. Horrez gain, janaria ere oso garrantzitsua da. Hemen elikadura orekatuagoa egin dezakete, hango gabeziei aurre eginez. Bestalde, eurak bizi diren kanpamentutik kanpora beste leku batzuk badirela jakiteko ere balio die". Baina horrez guztiaz gain, umeak handik etortzean gatazkaren mezulari ere badirela azaldu dute elkarteetako arduradunek. Haien lurraldearen okupazioaren eta horren ondorioen mezulari.



Meriendatzera igo ziren zapatuan San Martzialera Bergarako Bubisher elkarteak. Ginkana eta guzti izan zuten umeek.

**Bergarakoek San Martzial aukeratu zuten zapatuan merienda egiteko**

**Arrasatekoak Udalako Uxartera joan ziren atzo eguerdian bazkaltzera**

UME SAHARARRAK OPORRETAN DEBAGOIENEAN

## Sahararen gaineko argazki erakusketa

*Sahara. Herri bat; bi errealitate izeneko erakusketa zabaldu zuen egubakoi-tzean Bubisher elkarteak Bergarako Aroztegi aretoan. Lurralde okupatuak eta kanpamentuak. Horiexek dira erakusketaren antolatzaileek argazki bidez erakutsi nahi dituzten bi errealitateak. "Han bizi duten arazoa erakutsi, zabaldu eta herritarrek horretaz jabe daitezten" antolatu dute erakusketa. Horrekin batera, sahararren bizimodura hurbiltzeko emakumezko zein gizonezkoen jantziak, haima txikia eta eguneroko bizitzan erabiltzen dituzten tresnak ere batzen ditu erakusketak. Horrekin batera, bi bideo ikus daitezke: bata lurralde okupatuak du gai; besteak, kanpamentuak.*

*Erakusketa ikusgai egongo da hilaren 17ra arte.*



ARGAZKILARIAAAA

### • HORRELA BIZI DUTE UMEEK ETA HARRERA-FAMILIEK EGONALDIA



LURDES, MAIRI MAHJUBA ETA MIKEL |  
ANTZUOLA

#### "Halako egonaldiek onura handia egiten diete umei, baina bere zailtasunak ere baditu"

Hainbat denbora buruan bueltaka ibili eta gero, duela bi urte animatu eta ekarri zuten Mahjuba etxera Lurdes eta Mikelek. Aurten bigarrena du, hortaz. Halako egonaldiek umei onura handia egiten dietela azpimarratu dute, baina bere zailtasunak dituela ere aitortu dute.



ARANTXA, XABIER, GLUL, ENKO, AITZIBER ETA  
FELIPE | BERGARA

#### "Ikasi dudak gauzarik garrantzitsuenak da gorra autonomo izan gaitzkeela"

Glul etxean izatea aberasgarria izan dela aipatu du Arantxak, "kultura ezberdinekoak izanda, bata bestearengandik ikasi dugulako". Gorra da Glul eta hemengo eskola berezietan ikasitakoa han irakastea du helburu. Ikasi duen gauzarik garrantzitsuenak da: "Gorrek autonomo izan gaitzkeela".



JUAN ANTONIO, ENKO, INMA, SALEH ETA JON |  
ANTZUOLA

#### "Errebisioan astigmatismoa duela igarri diote, eta betaurrekoak jarri dizkio okulistik"

Okulistarengana eroan eta astigmatismoa duela jakinda, betaurreko berri-berriak jantzita itzuliko da Saleh etxera. Lehenengoz hartu du Antzuolako familia honek ume sahararra etxean. Hasieran pixka bat kostatu zitzaizen egoerara moldatzea, baina orain oso pozik dago familia osoa.



KARMELE, HAIZEA, MOHAMED ETA JABI |  
ARRASATE

#### "Umeoi ondo egiten die egonaldiak, han ez dituzten mediku zaintzak eta jakiak dituztelako"

Iaz ekarri zuten lehenengoz umea eta aurten Mohamed ekarri zaien. Alaba Haizea izan zen gurasoak animatu zituen horretara eta eurak ere debagoiendarrak animatu nahi dituzte: "Umeoi ondo egiten die egonaldiak; bi hilabetez, behintzat, han ez dituzten mediku zaintzak eta jakiak dituztelako".



RAQUEL, YAMILA, JUAN CARLOS ETA MALENA |  
ARRASATE

#### "Umearen arabera izaten da, baina gure kasuan lan pixka bat izan dugu Yamilarekin"

Lehenengoz hartu dute umea eta adinarengatik pixka bat penatuta zegoen Raquel: "Gureak 3 ditu, eta txikia eskatu genuen arren, 10 urte ditu Yamilak. Ezberdintasuna handia da". "Umearen arabera izaten da, baina gure kasuan lan pixka bat izan dugu Yamilarekin", gehi du Raquelek.



MARIA, M. CRUZ, FATATTA ETA ANGEL |  
ARRASATE

#### "Nahikotxo aldatzen da gure bizitza umea gurekin dugunean; atentzio handia eskatzen du-eta"

Hirugarren urtez etorri da Fatatta arrasatear hauen etxera. Azaldu dutenez, umea eurekin dagoen bitartean "nahikotxo aldatzen da gure bizitza; atentzio handia eskatzen du-eta". Inongo zalantza barik jendea animatu nahi dute umeak ekartzera "oso ondo egiten dielako egonaldiak".

LANDETXEAK | URTERIK URTE GERO ETA BISITARI GEHIAGO DITUGU DEBAGOIENEAN

# Aurten sasoiaren uztailean hasi da eta erabat beteta egon dira landetxeak

*Ibar osoko baserri etxeak beteta egon dira abuztua; Kataluniatik etorri dira gehienak*

*Inguruak zoragarriak iruditzen bazaizkie ere, batzuk kezu dira ibarrean jatetxe gutxi dagoelako*

Jon Berezibar

Debagoieneko landetxeak bisitari askoren kanpamentu nagusi izaten dira, ibarraren kokapen estrategikoa dela-eta. Bertako baserri etxeetan ostatu hartuta, Euskal Herria ezagutzeko abiapuntutzat hartu ohi dute eskualdea. Paisaiarekin, jendearen adeitasunarekin eta janariarekin txundituta itzultzen omen dira bisitariak etxera.

Ezbairik gabe kataluniarrak dira ibarreko landetxeetako apopilorik leialenetakoak, eta, hain zuzen ere, egubakoitzean Antzuolako Ibarre baserrian gosaltzen harrapatutako guztiak hangoak ziren: bikote bat etxera itzultzeko mailetak egiten zebilena eta besteak, iritsi berriak, oraingo egunetan zer ikusi planak egiten.

Carlos eta Laura / Bartzelona

Bartzelonatik irten eta oporretan Kantauriko itsasertza ezagutzen ibili dira Carlos eta Laura. Lehenik Galiziara jo zuten, han astebete egin eta Santanderra joan ziren eta azkeneko geldialdia Euskal Herrian egin dute: Donostian, Zarautzen eta Antzuolan. "Mendi eta ibilaldi politen bila etorri gara", argitzen du Carlosek, eta, bertara datozen lehen aldia izanik, lekurik ezagunak bisitatzea erabaki zuten.

Lagun baten gomendioz aukeratu zuten Antzuolako Ibarre landetxea, "eta ikaragarri ederra da", dio Carlosek, baserriaren aurrealde dotoreari begira eta inguruko zelai berdeak miretsita. Hitz egiten, aldamenen Pilar dauka, landetxeako arduraduna. Aurtengo abuztuan etxea goraino beteta izan dutela komentatzen du Pilar Belastegik, asko igarri dela aurtengo gorakada: "Batez ere katalanak animatzen dira gehien gure ingurura, baina aurtun Estatutik jende gehiago etorri" dela zehazten zuen Pilarrek; "Andaluziatik, adibidez". Bisitariak gehienbat lasaitasun eta bestelako turismo mota baten bila etorri ohi direla dio Pilarrek. Bartzelonako bikote horrek, esaterako, Euskal Herria hiria eta natura uzartzen dituelako aukeratu zuten. Ikusitako guztitik, mendiekin eta inguruetan egin-


dako osterekin geratzen dira biak. Elkarrizketa amaitzerako mailetak autoan prest zeuzkaten, berriz etxera itzultzeko. Antzuolako izan da oporretan egin duten azken geldialdia.

Carlos eta Heribert / Bartzelona eta Lleida

Arantzazu aldean behin baino gehiagotan daude egonda Kataluniako lagun bi horiek, eta, inguruak ezagututa, Antzuolan ostatu hartzea erabaki dute aurtun, Interneten lekuarekin topo egin eta gero. Kataluniarrek oporretan iparraldera egiteko joera baieztazen du Carlosek, esanez "bi herrien artean lotura komunek" eragiten dutela hori. Aurretik egonak direnez, ondo ezagutzen dituzte inguruak, baina biek aipatzen dute jendearen gertukotasuna harritu eta miresten dutela. "Sarri uste dugu euskaldunak itxiagoak eta hotzagoak zaretela", aitortzen du Carlosek, "baina jendea hain da adeitsua, lagunei lekuak azaldu beharrean jendeaz hitz egiten diegu beti". Beti aukeratzen ei dituzte landetxeak gauak egiteko eta autoz egun osoko irteerak egiten dituzte. Ingurutik Arantzazu - domekan meza entzuten egon ziren - eta Zumarragako eliza aipatzen dituzte. Kritika bakarra egiten diote ibarrari: "Oso jatetxe gutxi" daudela eta Euskal Herrian "harriztekoa" iruditzen zaiela. Eguenean iritsi ziren eta astebete egingo dute bi lagunek Euskal Herrian. Turismo kulturala egiteko asmoarekin etorri dira.

**Aurtengo gorakada asko igarri dela diote landetxeetako arduradunek**

**Turismo kulturala eta natura ibilbideak dira bisitarien bertan bilatu ohi dutena**



**CARLOS ETA LAURA** | BARTZELONA | Kantauriko itsasertza aukeratu du bikoteak oporrek igarotzeko. Etxera itzuli baino lehen Antzuolan egin dute azken geldialdia. Argazkian Pilarrek ageri dira, Ibarren.



**ANTONIO ETA HERIBERT** | BARTZELONA ETA LLEIDA | Inguruko tenpluetan zeukaten interesa Bartzelonako lagun bi hauek. Atzo Arantzazura mezetara joateko asmoa zeukaten.

MAITE SADA | BARRENENGUA LANDETXEAK

## "Uztailean hasi da aurten jendea etortzen gurera"

J. B.

**Elgetako Barrenengua baserri turismoko arduraduna da Maite. Eta hura ere aurten sektoreak izandako gorakadaren lekuko izan da.**

Ze bisitari mota izan ohi duzue?

Aurten, beti bezala, kataluniarrak etorri dira gehien, Bartzelonakoak eta Gironakoak. Edozelan ere, jatorri oso ezberdinetakoak ere izan dira: italiarrak, Andaluziatik ere etorri dira... Urte honetan igarri dena da jendea uztailean hasi zela

etortzen, eta orain arte hori ez da gertatu.

Zer motatako turismoa izan ohi da?

Oporren lehen sasoiaren adin ertaineko bikoteak ziren gehiago, astebete pasatzeko, eta gero familiak hasi dira etortzen

Zer bilatzen dute?

Hiriko jendea izaten da eta natura eta lasaitasunaren bila datoz. Elgeta aukeratzen dute guztiaren erdian gaudelako, leku asko bertatik asko jota hiru ordu laurdenera daude. Oso leku lasaia da, gainera, eta jaietara joaten badira hemen lasai lo egiten uzten diegu. Sarrera ona



Maite Sada.

dugu eta komunikazioa ona da. Aurten bisitari asko parke naturalak ikusteko gogoarekin etorri dira, kostaldeaz eta hiriez gain, noski.

## Marixeka Eguna giro onean pasatu zuten aramaioarrek

*Gardoki taldearekin erromeria eta Gorritiren animaliekin umeentzako jolasak ez ziren falta izan Gure Aterpea Elkarteko jaietan*

Goreti Elortza

Irailako lehenengo domekan ospatzen dute urtero aramaioarrek Marixeka Eguna. Ospakizuna Uribarri auzoko ermita ondoko zelaietan izaten da eta bertako elkartearen sorrera ospatzen dute, Gure Aterpea elkartearena, hain zuzen.

Domekan, urtero bezala, jende asko gerturatu zen hara, heldu zein gazte. 12:00etan meza egin zuten ermitan. Mezaren ostean, jende ugari hurbildu zen elkartekoek jarritako txosnara, txorizoa eta salda dastatzera.

Aurten, herriko dantzariak beharrezkoak, erromeria egon da Gardoki taldearekin mezaren ostean. Taldeak euskal kantuekin girotu zuen festa. Eta 14:00etan bazkaria egin zuten elkartean Gure Aterpea elkarteko bazkideek.

Gure Aterpea elkarteak antolatzen du urteroko festa, Jabier Arriaran elkarteko presidentek azaldu zigun bezala: "Elkarteko bazkideok antolatzen dugu jaiak, elkarrekin eraiki zela ospatzen dugu-eta. Horregatik bazkideok egiten dugu lan, urtero batzuek. Badaude urtero tabernari ibiltzen direnak ere. Kobratu gabe, baina gustura ibiltzen gara lanean!", adierazi zuen Arriaranek. "Aurten jende gutxiago etorri dela uste dut, leku askotan dira-eta jaiak egun hauetan...", zioen.

### ARRATSALDEAN GEHIAGO

Arratsaldean, Gardoki taldearen erromeriak jarraitu zuen giroa alaitzen eta 18:00ak aldean Gorritiren animaliekin umeentzako jolasak izan ziren ermita ondoko zelaietan.



Marixeka Eguna jende ugari hurbiltzen da urtero.

GORETI ELORTZA

### • MARIXEKA EGUNEAN URTERO



FELIX ELEJALDE | ARAMAIXO

"Tabernari ibiltzen naiz urtero, eta oso gustura"

"Txorizoa, salda eta freskagarriak saltzen ditugu gure txosnan. Elkarteko jendeak egiten dugu lan eta ez da dirua irabaztea helburua", esan zigun Felixek. "Ondo pasatzea baizik!"



LUR GURRUTXAGA | ARETXABALETA

"Ama Aramaiokoa daukat eta urtero etortzen naiz"

"Oso giro ona egoten da, jende asko gerturatzen da festara. Txikitatik etortzen naiz urtero, ama hemengoa da-eta", esan zigun Lurrek. Txorizoa oso ona zegoela aitortu zigun neskatxak.

## Gaur hasiko dira berriro 18/98ko epaiketak, sei asteko etenaldia eginda

*Era berean, salaketa eta sozializazio kanpaina hasiko du 18/98+ lantaldeak*

A.G.

Gaur, astelehena, ekingo diote berriro 18/98 makrosumarioari, sei asteko geldialdia egin eta gero. Eta epaiketari berriro eutsiko diotela salatzen prentsaurrekoa egin zuen egubakoitzean 18/98+ lantaldeak, Donostian. Hainbat eragile politiko eta sozialetako ordezkariak egin zuten bat agerraldia-ekin, eta, Maite Aristegik adierazi zuenez, epaiketaren etenaldia bake bidea bultzatuko luke. Aristegiren esanetan, epaiketaren etenaldia

une politikoaren aireen zeharo aurka doa eta oztopoa baino ez da. Horrekin batera berretsi zuten "makroepaiketaren politikoa" dela, "bultzada politikoaz aurrera eraman dena". Hori horrela, epaiketaren etenaldia eta kasu artxibatzea eskatu zuten lantaldekoek. Eta gehitu zuten epaiketaren jarraituz gero "ahalik eta azkarren eta ondoen bukatzea" espero dutela, "eta gero datozen beste lau kasuak (Gestorak eta Askatasuna, Batasuna, Udalbiltza eta Euskaldunon Egunkaria) ez daitezela epaiketara iritsi".

Epaiketaren salatzen, sozializatzen eta auziperatuendako babes ekonomikoaren lortzeko helburuarekin, taldeak kanpaina jarriko du abian gaur bertan. Horrekin batera, udaletan mozioak aurkeztuko dituzte "udalen babesaren eskatzeko".

### • BERGARAKO IRALA KALEA BERRIZATU EGINGO DUTE



EDU MENDIBIL

### ZABALAGOA EGIN ETA PASEALEKU BIHURTUKO DA

Kalea zabaltzeko dauden bi irtenguneak (Gaspar jatetxearen ondoko garajea eta Sagarpe elkarteko parra) kendu egingo dituzte. Bestalde, kalea erabat itxuraldatuko dute eta zirkulazioa mugatu: zoru maila berean jarriko dute eta berria egin; Usoa eta Eusebio taberna pareko terrazatxoak berritu egingo dute, eta Irizar jauregia inguratzen duen hesia kendu egingo dute pasealekuan integratzeko. Hiru fasetan egingo dituzte lanak, abendutik aurrera, eta 2,2 milioi euroko aurrekontua dute (%30 Izartu programan sartzen da).

# Aretz

Plater konbinatuak • Ogitaratekoak • Hanburgesak

Pizzak • Paellak eramateko

Zeliakoentzako ogitaratekoak

Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA



Eusko Alkartasunak maiatzeko hauteskundeetara EAJrekin koalizioan joango ez dela iragarri eta gero, Nazio Batzarrari iritzia eskatuko ziola adierazi

zuen egubakoitzean Begoña Erraztik. Litekeena da aste honetan bertan egitea batzarra, jakinarazpen ofizialik oraindik ez badago ere.

PELLO URIZAR | DEBAGOIENKO EUSKO ALKARTASUNEN ARDURADUNA

## "Zuzendaritzaren erabakia estatutueta bide bat da, baina badago besterik"

Jon Berezibar

### Erabakia guztiz hartuta dago?


Oraindik ziklo bakarra itxi da. Batzorde eragileak erabaki bat hartu du, baina datorren astean edo hurrengoan Nazio Batzarra izango da eta orduan egingo dugu horri buruzko hausnarketa. Normalean Nazio Batzarra izaten da azken erabakia hartzen duena eta ordura arte itxaron egin beharko da, bozketarik egongo denik ere ez dakigu-eta. Printzipioz, beraz, ez legoke balorazio ofizialik.

### Datarik badaukazue?

Zehazki ez dakigu. Baliteke datorren astean izatea, baina deialdi ofizialik ez da egin momentuz. Printzipioz hausnarketarako bilera bat izango da. Gertatzen dena da ez dagoela bestelako aukerarik itxita. Batzar Nazionala instituzio garrantzitsua da, baina oraindik ez dakigu hango zati batek bozketa egitea eskatuko duen edo ez. Nazio Batzarrak baiezkoa edo ezezkoa erabaki arte, modu definitiboan, ez er dago lotuta. Normalean alderdiko zuzendaritzak hartzen du hauteskundeetan zelan aurkezteko erabakia. Kasu honetan, dagoeneko erabaki dute bi alderdiak ez direla hauteskundeetara aurkeztuko, baina gerta liteke konpromisarioen ehuneko batek eskatzea bozkatzera. Teorikoki hurrengo batzarra ez dauka helburu hori, baina oraindik ez dago ezer lotuta, ze aukera badago. Nik bailarako arduradun moduan daukadan iritzia batzar horrek zerbait erabaki arte ez dut emango eta pertsonalki iritzia bat izan arren, ez du zentzu handirik ordezkaritza moduan hitz egiteak oraindik. Organo gorenak erabaki behar du, Nazio Batzarrak, esateko bozketa beharrezko den edo Batzar Eragileak esandakoarekin nahikoa den.

**Hala ere, nahiz eta EAJrekin hauteskundeetara aurkeztu ez, orain arteko hitzarmenek eta kolaborazioak berdin-berdin jarraituko duela esan da.**

Alderdi mailan argi dagoena da Jaurlaritzako proiektua, guk daukagun erantzukizunaren aldetik eta egindako ekarpenarengatik, aurrera ateratzeko lanean jarraituko dugula. Ildo horretan ere aurrera egingo dugu normalizazio politikorako egitasmoetan ere. Kolaborazio hori koalizio moduan edo hau-



GOIENKARIA

Alderdiaren ibarreko koordinatzailea da Pello Urizar.

**"Printzipioz ez dago balorazio ofizialik; Nazio Batzarrean hausnarketa egingo da gaiari buruz eta orduan erabakiko da bozkatu edo ez"**

**"Teorikoki hurrengo batzarrean ez da bozketa egingo, baina gerta liteke konpromisarioek hori eskatzea"**

**"Koalizioan berriro joan gura izanez gero, Nazio Batzarraren bi herenek aldekoa izan beharko luke"**

teskunde ostean hitzarmenen bitartez egingo den ez dakigu.

### Nola funtzionatzen du Batzar Nagusiak?

Batzarraren erdia kongresutik dago aukeratuta zuzenean eta bestea herri erakundeetatik dator; herri bakoitzak kideen arabera ordezkariek izaten ditu. **Esaten da zuzendaritzaren erabakia atzera botatzeko batzar horren bi heren beharko lirakekeela. Hala da hori?**

Koalizioan berriro irten nahi izanez gero, botoen sostengu hori beharko luke proposamenak; azkeneko kongresutik halaxe ezarritako dago.

### Ibarrean koalizioaren aldekoa izan zarete orain arte; baduzue posizio bateraturik?

Bailaran ez da inolako bozketarik egin, printzipioz gai hori Nazio Batzarrak erabakitzen duela. Batzarrean herri bakoitzak bere ordezkariek dauzka eta herri bakoitzak erabakitzen du aldeko edo aurkako iritzia, azkenean bozkatzeko bada. Oraindik araudiak ahalbideratzen ditu bide batzuk; beraz, ez dakigu botazioa egongo den edo ez.

### • OSINTXUKO KOFRAIXAK



JOSETXO ARANTZABAL

### JENDE KOPURUAK GORA EGINDU

Jaiaren data astebete atzeratuz badirudi ondo egin diela Osintxuko jaiari. Jai batzordekoak, behitza, pozik azaldu dira aurreko urteetan baino jende gehixeago ibili delako. Askotariko ekitaldiak izan dituzte. Besteak beste, paella lehiaketa egin zuten bari-kuan eta parte hartu zuten 10 bikoteen artean Pablo Cuevasek eta Eva Alberdik egin zuten goxoa. Zapatuko herri bazkarian ere ez zen giro makala egon.

### • SAN LORENTZO AUZOKO JAIAK, BERGARAN



JOSETXO ARANTZABAL

### SARDINA JANEAN GIRO APARTA EGON ZEN

Zapatuan ospatu zuten San Lorentzo jaia izen bera daraman auzoan. Ume zein nagusiendako ekitaldiak izan dituzte eta trikitilariak egun osoan ibili ziren auzoa alaitzen. Gauean egindako sardina-jateak izugarriko arrakasta izan zuten. Mahai eta aulkiak egokitu zituzten baina ez ziren nahikoa izan eta hainbatek zutik ere jan zituen. 65 bat kilo sardona eron zuten eta 200 bat razio banatu zuten bertaratutakoaren artean.

[www.goiena.net-eko](http://www.goiena.net-eko)

## BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

Posta-e: [azabarte@goiena.com](mailto:azabarte@goiena.com)

Tel.: 943 76 92 70

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

/4quattro4  
/argi-plastik  
/arregi  
/atai  
/azkarate  
/joseba  
/BZ-sistemas  
/dragon-oriental  
/dukiena  
/ego

/elejalde  
/ezkutuorly  
/gallastegi  
/ganesha  
/garaia  
/gorkagarai  
/gorkataxi  
/guztizeder  
/irudisport  
/korozabaleta

/maulanda  
/mayte  
/merkeopari  
/multiopticas  
/ohiak  
/okipark  
/vitoria  
/pando  
/richimaier  
/udalatz

Eta baita ere:  
[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.baster-alde.com](http://www.baster-alde.com)  
[www.ehmf.com](http://www.ehmf.com)

**Goiena.net**  
Debagoieneko Interneteko ataria

Guatemalan eta Nikaraguan egon da hamar hilabetez oñatiar

hau ezinduei laguntzen. Etxera itzuli da, eta hango berri eman digu



ARANTZAZU EZKIBEL

AMAIA GOITIA | TERAPEUTA OKUPAZIONALA

## "Euren dirua izaten erakutsi nahi izan diegu"

Goreti Elortza

**Nola sortu zitzaizuen hara joateko ideia?**

Duela bi urte izan ginen Guatemalan, boluntario, eta ahal izanez gero itzuli egingo ginela esan genuen. Eta hala egin genuen. Guatemalan eta Nikaraguan izan gara oraingotan. Urriaren 23an abiatu ginen eta egunean heldu ginen hona. **Zein proiektuekin abiatu zineten?**

Proiektua ume zein heldu ezinduentzako eskolak eraikitzea zen. Gure kabuz joan ginen, inongo GKE barik, eta geure diruarekin, guk nahi bezala egin nahi genuen lan. Hango irakasleei programak azaldu, ezindu fisiko nahiz fisikoak nola tratatu behar diren irakatsi eta antolamenduaren berri eman nahi izan genien, besteak beste. Gure ikasketek aukera eman ziguten horretarako. Izan ere, neuk Terapeuta ikasketak ditut eta beste bi neskek Fisioterapia eta Hezkuntza Berezia.

**Zer harrera izan zenuten?**

Primeran hartu gintuzten, gure zain zeuden-eta. Orain dela 2 urte egindako lagunek bazezkiten-eta gure berri. Pozgarria

da leku batera heldu eta jendea zure presentzia hutsarekin pozik ikustea.

**Zein da hango herrietako arazo larriena?**

Arazo asko daude han, baina bat aipatuko nuke: atzeritarren dependentsia izugarria da. Berezi AEBek eta Holandak bidaltzen dieten diruaren mende bizi dira. Horregatik kooperatiba baten nola egiten den lan erakutsi diegu gurasei. Euren dirua egiten erakutsi nahi izan diegu. Dirua jasotzera ohituta daude eta ez dute lan egiteko beharrik ikusten. Egunen baten diru hori falta bazaie, orain badakite zer den kooperatiba bat. Oso pozik gaude egindako lanarekin.

**Zein kooperatiba mota sortu zenuten?**

S. Juan de la Lagunako (Guatemala) emakumeek haria asko lantzen zuten. Hori aprobetxatuz, poltsak, diru-zorroak, pilotak, zapiak... egiten genituen eta gero askotariko lekue-tan saldu. Hasierako haria guk erosi genien eta ondorengoak lortutako irabaziekin erosten zuten eurek. Sei hilabete egin genituen han.

**Gero Nikaragua aldera ere joan zineten...**

Bai. Han ere arazoak dituzten pertsonekin egin dugu lan gehienbat. Hilabete eta erdi inguru egon ginen Nikaraguko beste herri txiki batean. Gero, Panama, Costa Rica eta Kuban izan gara, baina horietan turista gisa.

**Gogorra egin al zaizue itzulera?**

Niri dagokidanez ez zait batere gogorra egin, baina, egia esan, oso erraz moldatzekoa naizela uste dut. Sabela izan da gehien sufritu duena. Izan ere, hemen asko jaten dugu eta han ez genuen horrenbeste jaten. Badugu gogoia egunen baten itzultzeko, baina ikusiko da...

**"Oso gustura gaude egin dugun lanarekin, lagungarria izango zaie etorkizunean"**

**"Ez zait oso gogorra egin etxerako buelta, azkar moldatzekoa naiz-eta"**

# Fiskaltzak artxibatu egin du Lakuntzaren kontrako auzia

*Fiskaltzak esan du Arrasateko alkatearen jarduna legezatasunean egin dela, Gelma kasuan EBk egindako salaketaren harira*

Monika Belastegi

Arrasateko Udalak aditzera eman duenez, Gipuzkoako Auzitegi Probitzialeko fiskaltzak Arrasateko alkatearen kontra zabaldutako diligentsiak largetsi eta artxibatu egin ditu. Izan ere, Udalak Gelma eta Obernerreka Fundazioarekin sinatutako hitzarmenean emandako urrats guztiak legezatasunean eman direla kontsideratu du. Hitzarmenean alkateak ustez egindako irregulartasunengatik jarri zuen Ezker Batuak salaketa, baina fiskalak iritzi dio gertakariok ez direla delitu.

Abuztuaren 22an emandako ebazpenean zera baieztatzen du: "Existitzen diren premisa juridikoekin, Ander Rodriguez Arrasateko Ezker Batuko zinegotziak salatu dituen gertakariak ezin dira delitutzat jo". Horrekin batera fiskalak honakoa gaineratzen du: "Udaleko idazkariak igorritako dokumentazioa aztertuz adierazten da hiri-plangintzaren eta 2004ko martxoaren 8an sinatutako hitzarmenaren onarpen prozesuetan ez dela legearen kontrarik egon". Bestetik, honakoa adierazi du Hirigintza-buruak egindako balorazioen eta onartutako hitzarmenean jasotako balorazioen desadostasunen harira: "Udaleko idazkariak berak, oso egoki kontsideratu duen moduan, bi aldeak akordioan elkar derrihortzen duten kontraprestazioak



ARTXIBOA

EBk Gelmako orubean etxebizitzak egiteko erabakia ikertzeko eskatu zuen.

direla-eta, orokorrean balantza orekatu egiten da".

Fiskalak EBri zuzendutako hitzak ere badiu eta gogoratu nahi dio balorazio dibergentziak, izatekotan, ez direla bideratu behar Zuzenbide Penalaren aldetik, Zuzenbide Administratiboarenetik baizik. Horrekin batera dio ez dagokiola fiskaltza horri "sinatutako akordioaren terminoek Arrasateko herriari sortuko dizkien onura edo galerak baloratzea", modu horretan legezatasun printzipioaren esparru zehatza gaindituko lukeelako eta aukera printzipioaren esparruan guztiz sartuko litzatekeelako.

**ARRASATEREN IZEN ONA**

Ebazpena jakin eta gero, Ignacio Lakuntzak adierazi du "iritzi

publikoa manipulatu saiatzen diren akusazio faltsuek" ez diotela Arrasateren izen onari mesederik egiten. Eta gaineratu du zinegotzi guztiek euren interes politikoen gaineratik zerbitzatzen duten udalerraren interesak jarri behar dituztela. "Arrasateko propio den lan estilo ordenatu eta etengabea nahi dut Udalerako, desadostasunak eztabaidatuz, baina errespetu osoz", azpimarratu du Lakuntzak.

**EB-REN ERREAKZIOA**

EB-Berdeak aditzera eman duenez, fiskalaren erabakia errespetatu egiten du, baina ez dator bat ebazpenarekin. Hori horrela, salaketa berretsiko ote duten aztertzen ari direla azaldu du Ander Rodriguez zinegotziak. Bestalde, azpimarratu du Fiskaltzak ez duela ikerketarik egin jakiteko hitzarmen hori eraginen trafikoz edo eroskeriaz baliatuz sinatu zen. EAJren zerrendako Ines Aldai zinegotziari deklaraziorik hartu ez izana ere deigarri egin zaio "faborezko tratua salatu ondoren".

**Herrian lan egiteko estilo ordenatua eta etengabea nahi du Lakuntzak**

DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



**OHARRA**

2006ko Irailaren 11tik aurrera Arrasate, Bergara eta Oñatiko Garbigunek ordutegi zabalagoa izango dute:

Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 13:30era  
15:00etatik 19:00etara

Larunbatetan: 9:00etatik 13:30era

Igande eta jai egunetan itxita.

Tel. 943 79 33 99

www.debagoiena.com

## Albiste izango da

ELGETA | MENDIZALEEN PLAZAN BATUKO DUTE

## Egubakoitzean batuko dute erabilitako olioak, arratsaldean

Abuztuan ez du etenik izan erabilitako olioak batzeko zerbitzuak eta irailean ere berdin jarraituko du. Egubakoitzean, hilaren 8an, izango da erabilitako olioak jasotzeko hurrengo hitzordua. Egun horretan Mendizaleen plazara joango da Puntu Berde Mugikorra; arratsaldean izango da hori, 16:00etatik 20:00etara. Sukaldean erabilitako olioak beirazko, plastikozko edo brik erako ontzian eraman behar da. Nahi izanez gero, arduradunek ontzia garbituko dute, eta, bestela, han laga daiteke. Etxeko traste handiei dagokienez, orain arte bezala eguenero batuko dituzte.

ESKORIATZA | ZERBITZUA ETZI ZABALDUKO DUTE

## Gaur hasiko dira hezitzaileak partzuergoko haurreskolan lanean

Bukatu dituzte partzuergoko haur eskolaren lanak. Luis Ezeiza eskolaren ondoan dauden oktogonoetan jarri dute haur eskola zerbitzua eta asteon irekiko ditu ateak: gaur, astelehena, hasiko dira hezitzaileak lanean eta gurasoekin harremanetan jartzen. Zerbitzua ematen, berriz, eguaztenean hasiko dira.

Dagoeneko hamar bat umek eman dute izena eta adinaren arabera bi taldetan banatuko dituzte: 0 eta 1 urte artekoak eta 1etik 2rakoak. Oraingoz bi hezitzailek jardungo dute, baina baliteke aurrerago gehiago izatea. Haur eskola 42 umerendako zerbitzua emateko prestatuta dago. Interesa duenak haur eskolara jo dezake izena ematera.

ARAMAIO | 18:00ETAN UDALETXEAN

## Lagun Artea taldearen omenaldia prestazeko batzarra bihar

Mende erdia beteko du aurten Lagun Artea herriko dantza taldeak. Hori horrela, omenaldia gertatzekotan da Udala. Horretarako, dantza taldean jardundako belaunaldi guztietako kide ohien bila dabil Udala bera. Hala, herritarren laguntza eskatu du antolakuntzan laguntzeko eta azken 50 urteotan dantza taldean aritu direnen zerrenda osatu ahal izateko. Hain justu, Udalak dagoeneko bidali die hainbat gutun kide ohiei kolaborazioa eskatzeko. Hala ere, oraindik jende bila dabilte.

Omenaldi ekitaldia prestatzen hasteko lehenengo batzarra bihar, martitzena, izango da, arratsaldeko seietan, udaletxean. Hori horrela, interesa duten guztiei gerturatzeko dei egiten die Udalak.

ESKORIATZA | EGUNA ZEHAZTEKE

## Aste honetan dira amaitzeko Santa Ana auzoko urbanizazioa

Argiteria elektrikoaren panelak amaitzea, baldosa batzuk konpontzea eta azken ukituak egitea besterik ez da falta hilabetetako atzerapenaren ondoren Santa Ana auzoa berriro urbanizatzeke lanekin amaitzeko.

Lanetan espaloiak zabaltu eta ingurua txukundu dute; kaleak zeharo jantzita geratu dira. Atzerapen handiarekin, baina aste honetan amaituko dituzte falta diren lanak, Udalak adierazi duenez. Izan ere, 2005ean lanok hasi zituztenetik hona, lanek hainbat gorabehera izan dituzte aurrera egiteko.

ESKORIATZA | BI URTEAN BEHIN OSPATZEN DUTE

## Zapatuan ospatuko dituzte San Juan kaleko jaiak auzotarrek

San Juan kaleko auzotarrek datorren zapatuan ospatuko dituzte euren kaleko jaiak, bi urtean behin egiten moduan. Bazkarira joan gura izanez gero kontu korrantea ireki dute 20 euro sartzeko. Honako hau da: 3035 0044 80 044100737. Antolatzaileek sarrera lehenbailehen egiteko eskatu dute.

Egitaraua dagoeneko prest daukate: goizean etxafuegoek emango diete hasiera jaiei eta ostean txistulariak giroa alaitzen arduratuko dira bazkalordura arte. Meza izango da, eta txikiteolegea egin eta gero, bazkaria izango dute auzotarrek Egokiena elkartearen, dantzaldi eta guzti, gainera.

## Hitzorduak



## ANDRA MARI JAIK OSPATZEN HASIKO DIRA GATZAGARRAK EGUENEAN | Ekintza nagusiak dira trialsin erakustaldia eta herri afaria

Andra Mari jaiak, herriko jai nagusiak, ospatzen hasiko dira gatzagarrak hilaren 7an, eguenean. 18:00etan egingo dute hasiera ekitaldia, raflen ezkil emanaldiarekin, etxafuegoekin eta bonba japoniarrekin. Gero, bederatziruena izango dute Dorletako santutegian.

Denetariko ospakizunak izango dira asteburu osoan, baina aurtengo berritasun nagusiak bi dira, biak zapatuan: batetik, trialsin erakustaldia, Euskadiko txapeldunarekin, Malkorre plazan, 12:30ean; bestetik, herri afaria, aurten bigarren aldiz antolatzen dena, iaz arrakasta handia izan zuelako.

## ANTZUOLA |

## • Lizarran akanpada antolatu du Arrola taldeak

Lizarran akanpada egingo du Arrolak irailaren 9an eta 10ean. Izena emateko eguna bihar, martitzena, da Arrolako lokalean, 19:00etatik 20:00etara.

## ARRASATE |

## • Arantzazura erromes joango dira hilaren 10ean

Hilaren 10ean, domeka, erro-mesaldia egingo dute Arantzazura. Oinez doazenak 06:30ean abiatuko dira Kontezino kaletik; autobusa Garibaitik irtengo da 09:00etan. Autobuserako txartelak Ecuador bidaia-agentzian eskatu behar dira.

## BERGARA |

## • Agorrosinen lan egiteko eskaerak aurkezteko eguna

Agorrosinen bulegoko laguntzaile eta atezain lanpostuak betetzeko asmoz deitu dute lehiaketa-opsizioan parte hartzeko azken eguna duzue gaur, astelehena. Oinarriak udaletxean eta [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean dituzue.

## • San Martin jaietako danborradetako entseguak

Gaur, astelehena, hasiko dira umeen zein helduen danborradetako entseguak, Seminarioko patioan. Hurrengo egu-

nak hauek dira: irailaren 5a, 6a, 7a, 11, 12a, 13a eta 14a. Umeek 19:00etatik 20:00etara entsetuko dute; helduek, 20:00etatik 21:00etara.

## • Eguaztenean hasiko da ikasturtea musika eskolan

Zabalik dago, hilaren 15era arte, musika eskolan izena emateko epea 5, 6 eta 7 urtekoendako. Musika-tresnaren bat ikasi behar dutenek martitzenean, 16:30ean, orduetgia adostuko dute. Lehenengo eskola eguna eguaztenean da.

## • Lotura afektiboen gaineko ikastaroa antolatu dute

Emakumeei zuzenduta, lotura afektiboen gaineko ikastaroa antolatu du Udaleko Gizarte Ongizate Sailak. Besteak beste, honako gaiak landuko dira: rolak eta estereotipoak, autoestimua... Izenematea zabalik dago udaletxean edo 943 77 91 25 telefonora deituta.

## • Ikasturte hasiera San Martin Agirre ikastetxean

Irailaren 8an, egubakoitza, hasiko da ikasturtea San Martin Agirre ikastetxean, Haur eta Lehen Hezkuntzan. Hilaren 18ra arte, goizeko orduetgia izango dute.

## DEBAGOIENA |

• Bergarako eta Oñatiko helduen eskolan izenematea Bergarako eta Oñatiko helduen heziketa ikastetxeek

zabalik dute, irailaren 13ra arte, matrikula egiteko epea. Aurten, berritasun moduan, frantsesa eta informatika oinarriak emango dituzte. Argibideetarako, deitu honako telefonoetara: 943 76 44 52 (Bergara) eta 943 78 35 77 (Oñati).

## ELGETA |

## • Motor kontzentrazioko bazkarirako izenematea

Lambretta eta Vespa motorren I. kontzentrazioa egingo dute irailaren 24an, zapatua. Egitaraua zabala prestatu dute. Besteak beste, bazkaria egingo dute, eta izenematea udaletxean egin behar da (943 76 80 22 da telefonoa). Honako ekintzak izango dira: 11:00-12:00, motorren kontzentrazioa plazan; 13:15ean, Elgeta-Ubera-Bergara-Angiozar-Asentzio-Elgeta ibilbidea; 14:30ean, bazkaria; eta 17:00etan, etxera. Bazkarirako izenematea zabalik dago irailaren 20ra arte.

## OÑATI |

## • Danborrada nagusian parte hartzeko izenematea epea

San Migel jaietako danborrada nagusian zeintzuk irtengo diren aukeratzeko zozketa egingo dute gaur, astelehena, Errekaldeko eskolaren lokalean, 19:30ean. Dantzariak gaur dute lehen entsegua; danborrariak, berriz, bihar.



# Gura bezain laster

*Laster ikusiko dat berriro. Ramblan gora Ramblan  
behera berarekin ibili, Gaudiren eraikinak... laster  
batean trenera igoko naiz.*

Lurraldebusek, Debagoieneko garraio zerbitzu intermodal berriak,  
eskualdeko herriak RENFE eta Eusko Treneko zerbitzuekin lotzen ditu.

**LURRALDEBUS**



**Gipuzkoa hiria**  
*gero eta hurbilaqo!*

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Pesaren autobus zerbitzu hobetua zalantzan

Autobus lineak indartu dituztela jakinda, irakurle batek ez du ulertzen nola jarrai dezakeen zerbitzuak lehengo gabezia larriekin. "Ondo dago ibar barruko eta Donostiarako autobus gehiago izatea, baina oraindik ere Bilborako eskaintzak lotsagarria" izaten jarraitzen duela dio. "Ez dute Bilborako autobus bat bera ere gehitu", eta kezkatzen da "hain gertu dagoen hirira joateko modurik ez" dela egoten Pesaren eskaintza "aldrebesarengatik". Proposatzen du Arrasatetik gutxienez Elorriorako linea bat ezartzea, "Bizkaiko zerbitzua mila bider hobe" delako eta han "herririk txikienek ere autobus zerbitzu duina" dutelako, "Arrasaten ez bezala".



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

## Sarean harrapatuta

### Kurtso hasierako gastua handitzen doa?

Euskadiko Kontsumitzaile Elkartearen arabera, batez beste 500 euro gastatuko dituzte euskal familiek ikasle bakoitzeko; eta kopuru hori bikoiztu edota hirukoiztu egin daiteke ikastetxe pribatuen kasuan.

Kurtso hasieraren atarian, gastuaren gainera galdera jarri dute *Goiena.net*-eko eztabaida atalean: *Kurtso hasiera geroz eta garestiagoa da? Hemen bildu ditugu irakurleek emandako iritzi batzuk.*

### EZ DA HARRITZEKOA UME BAKARRA IZATEA

Guztia bezala eskolarako itzule-ra ere gastua besterik ez da. Liburu-eruen prezioak igo egin dira. Zer esanik ez eskolarako materialak! Gainera haurrak eskolan jan behar badu beste gastu bat gehiago da. Uniformea behar badute berdin. Ingelesa, eskola partikularrak edota eskolaz kanpoko ekintzaren batean apuntatzen badira ere dirua eta dirua! Ez zait arraroa egiten familia askok haur bakarra izatea.

Jone / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### KONTSUMISMOTIK ALDE EGITEA GURE ESKU DAGO

Egia da garestiagoa dela kurtso hasiera. Baina gastua txikitzea ere gure esku dago. Esaterako liburu berriak erosi beharrean norbaiti eskatzea izan daiteke bidea. Umea ikastetxe publikoetan matrikulatzen badugu gastuak ere dezente murrizten dira. Eta zer esanik ez haurrak beharrezkoa ez duen materiala ez badugu erosten. Izan ere, askotan hori izaten da gakoa. Nik ez dut uste Miren, zuk esaten duzun bezala irtenbidea haur bakarra izatea denik. Gure burua eta jokatubidean dago gakoa! Gizarte kontsumista honetatik ihes egitea gure esku dago.

Gorka / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### BEHARREZKOA DENA BAKARRIK EROSI

Niri gehiegikeria bat iruditzen zait. Honi buruzko erreportajea ikusi dut telebistan eta jendea zoraturata dago! Alferrikako gastuak asko dira: uniformeak, liburuak eramateko karroak... Gure umeei beharrezkoa dena bakarrik erosten badiegu gastua asko murriztuko dugu.

Lier / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### UME GEHIAGO ETA DENA PARTEKATU

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Kurtso hasiera iritsi da; uste duzu hazi egin dela egiten den gastua?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo [www.goiena.net](http://www.goiena.net) webgunera

Nire eskola urteak bukatu nituenetik ahaztuta nabil kontu horiekin, baina pentsatzen dut eskolarako itzulerak ere gora egingo zuela, guztiak moduan. Egia da gastu batzuk ezin direla saihestu, baina beste batzuk gure esku daude. Horregatik, bat nator Gorkarekin esaten duenean irtenbidea ez dela seme-alaba bakar bat izatea, kontsumo-gurpil honetatik ateratzea baizik. Balantza batean ipini eta aukeratu egin behar: haur bakarra gura den guztiarekin, edota bi-hiru seme-alaba eskola-materiala, jantziak, jostailuak partekatuz.

Naroa / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### GARESTIAK EZ DU KALITATEA BERMATZEN

Ni ere bat nator Gorka eta Naroak esan dutenarekin. Gure esku dago gastuak murriztea. Gure seme-alaben lehentasunak zeintzuk diren markatu behar dugu eta horien arabera jokatu. Hezkuntzan diru asko gastatzeak ez du esan nahi hezkuntza hobea ematen ari garenik gure seme-alabei. Ez dut ikastetxe publiko eta pribatuen arteko eztabaida zabaldu nahi baina matrikula ikaragarri ordaintzeak ez dauka zeri-kusirik bertako hezkuntza kalitatearekin.

Mirari / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## Halaxe erantzun digute

Fidelen gaixoaldiak osteraz piztu du Kubaren geroari buruzko eztabaida. Zein da etorkizuna



**ANTTON MENDIZABAL** |  
EHU-KO IRAKASLEA

Kuban elementu bi erabat sustarituak daude: identitatea eta subiranotasun nazionala eta konkista sozialak ezinbesteko esku-bide moduan ikustea. Hor legoke kubatarren etorkizuneko erronka. Badakite akatsak egin dituztela eta sobietar erredutik euren bidera egin behar dutela.



**MARCOS GABILONDO** |  
KOMITE INTERNAZIONALISTAK

Nik esperantza badut gauzak ez direla egun batetik bestera eroriko hainbeste urteren ostean. Gizartean sozialismoa sustaritu dago eta Gobernuan dagoeneko badaude belaunaldi berriak lanean. Zalantza barik egongo dira aldaketak eta zabalte bat, baina gauzak irauli barik.



**MARIA MENDIOLA** |  
KUBATARRA

Herri sozialista da Kuba eta bada-kigu iraultzari era diziplinatuaren eutsiko diogula aurrerantzean ere. Belaunaldi berria, gainera, iraultzan zuzenean borrokatu ez izan arren, inoizko belaunaldirik prestatuena da eta ezagututako bideetatik geurea guztiontzat onena dela badakigu.



**NANI TAMAYO** |  
KUBATARRA

Belaunaldi bakoitzak bere borroka izan du eta gurea amerikarren presioaren aurka egitea izan eta izango da, sartu gura duten ustelkeriaren kontra. Gure belaunaldiak betidanik ezagutu ditu iraultzaren idealak eta babes zabala du sozialismoak herrialdean. Herriak ez du besterik lagako.

**Egunkarietako harribitziak**


**JOSUNE BEREZIARTU**

Josune Bereziartu eskalataileak Arco Legends Award izeneko saria jaso du Arco-Bardonecchia herrian, Italian. Eskaladako Oscar sariaren parekoa da Lazkaokoak jaso duena. Harekin batera beste lau hautagai zeuden saria jasotzeko (gizonezkoak), mundu osoko eskalataile oso ezagunak, gainera.

'Berria'  
2006-09-03



**Zorroztailea**



**Kontsekuentea izatea**

*Ezkertiar baten bila nabil. Lehen baziren Euskal Herrian. Ezagutu nituen ezkertiar handiak, eta gustua ematen zuen haiekin hitz egitea. Espezie sozio-politiko hori desagertu egin da gaur egun gure herrian. (...) Hemen ez da lekurik geratu ameslarientzat, alternatiboentzat, kritikoentzat, soldatari begiratzen ez ziotenentzat.*

'Berria' | 2006-08-30

etxeen espekulazioarekin diru mordo bat irabazi duela enteratzen zara. Bai, ezkerreko alderdi baten zerrendetan agertzen den bizilagun bera, hain zuzen.

Badirudi, lehen halako negozi-oak bakarrik jende mota zehatz baten egiten zituela. Baina gaur egun orokorragoak eta interklasistak bihurtu dira itxura honetako azpi-jokook, eguneroko bizitzan ezkereskuin mugak erabat ezabatuz.

Ekologistaren arketipoa ere, yupizatu egin zaigu, eta harro ibiltzen da Pirinioetan barrena bere luxuzko furgonetarekin, hiriko ekologista berri honen ikur nagusia.

Zaila da norbera ezkertiarra dela aldarrikatzea, mila kontradikziotan erori gabe, behintzat. Eskuinekoak, alde horretatik, klase-kontzientziarik gabekoa izanik, errazagoa dauka bizitza kontradikzio mingarrietan erori gabe. Horretan, kontsekuenteagoa.

Juan Luis Azkarate

Pako Aristi, bere azken liburuak eta prentsa-artikuluen bidez, desgertzen ari den garai baten kontzientzia nostalgikoa bihurtzen ari zaigu. Ildo honetatik, euskal ezkertiarren desagertzearen iragarpena egin berri du. Eta ados nago Pakorekin, nahiz eta batzutan ematen duen Urrestillako idazleak daukala bere burua Euskal Herrian gelditzen den azken gizaki zintzo eta erostezintzat.

Gizonezko euskal ezkertiarra bizarduna izaten zen, eta mahoizko frakak eta koadrodun alkandorak jantzen zituen. Sindikalista, manufazalea eta txikiteroa zen Aristik aipatzen duen espezie sozio-politiko. Oinarri etiko batzuk gidatzen zituen gizaki mota honen bizitza.

Gaur egun, aldiz, edozein egunetan zure beheko bizilagunak

**"Zaila da norbera ezkertiarra dela aldarrikatzea, mila kontradikziotan erori gabe, behintzat"**

**"Eskuinekoak, klase-kontzientziarik gabekoa izanik, errazagoa dauka bizitza kontradikzio mingarrietan erori gabe"**

**EZTEI BAZKARIA PURURIK GABE?**

Eztei bazkariak ematen dituzten jatetxeek -egokitu barik dauden kasuetan- ezkongaien esku lagako dute erretzeko erabakia. Halaxe adierazten zuen atzo *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak. Tabakoaren Kontrako Legea dela-eta kezkatuen ei dagoen sektorea omen dela dio egunkariak. Halako jatetxeak dira lokal pribatuak non gonbidatuek nahi dutena egin dezaketen, ala lokal publikoak

dira eta arautegira lotuta daude? Zehaztasun falta horren aurrean, gehienek erabaki dute ezkongaien esku lagatzea erabakia, azken batean eurak direlako lokala alokatu dutenak eta horrek ematen dielako eskubidea erre daitekeen ala ez erabakitzeke. Egunkariak gaineratzen duenez, asteburu honetan egon diren ezkontzetan ohiko puruak erre dira.

'Noticias de Gipuzkoa'  
2006-09-03



**Tira, tira...**

**ZONA DE FUMADORES**



**ZONA DE NO FUMADORES**

- Erretzaileen gunea.  
- Ez erretzaileen gunea.

Tasio 'Gara' | 2006-IX-03

**Egunkarietan irakurri dugu**

**'Berria'**

**ALDAKETA GARAIKO HAIZEAK**

Earentzat onura edo kaltea ekarriko ote duen alde batera utzita, konponbide prozesuaren ikuspuntutik, datozen hilabeteetan koalizioaren lotura ez izatea ona izan daiteke eztabaidarako, jarrerak argitzen lagunduko duelako. Koherentzia handiagoz defendatu ahal izango ditu EAk burujabetzaren aldeko eta eremu nazionalaren aldeko jarrerak.

Pello Urzelai  
2006-09-03

**'Gara'**

**PRESOAK**

Presoak hurbiltzea aldarrikatzen dugun bakoitzean protesta egiten du Batasunak. Horri alderdikeria sutsua deritzot, eskubide mota zehatz batzuk eurek bakarrik aldarrikatu ahalko balituzte moduan. (...) Zer gertatzen da orain, biktimek ezin dutela rol politikorik izan prozesuan eta presoek eduki behar dutela? Zer zentzugabekeria da hori?

Josu Jon Imaz  
2006-09-03

**'El Diario Vasco'**

**ELKARRIZKETA**

"Etorkizuna eleanitza dela esango nieke euskara albo batera lagatzen dutenei eta eleantitasuna ez dela pobrezia iturri, aberatasun iturri baizik. Esango nieke ez liritekeela bizi beharko euskarari bizkarra emanda, galtzen ari direlako oso mundu aberasgarria. Gogoratuko nieke, baita ere, hizkuntza eskubideak ez direla indibidualak".

Patxi Baztarrika  
2006-09-03

**'Noticias de Gipuzkoa'**

**PULTSOA**

Eusko Alkartasuna izatea Euzko Alderdi Jeltzalearen itzaletik irtetea izango litzateke. Arrisku handia da hori, ez alderdi abertzaleak ezta alderdi jeltzaleak ere ez luketelako aukera galduko haginak sartzeko. Abertzaleen boto erabilgarriaren biktima errazak izateko arriskuan daude.

Felix Iriarte  
2006-09-03

# KIROLA

- Markel Irizar txirrindulariak lan ona egin zuen atzoko etapan | 14
- Enrike Ullibarriarana nagusitu zen Kurtzeta gaineko plater tiro lehiaketan | 15

Mikel Galdos aretxabaletarra bederatzigarren Iruñeako golf txapelketan | 14

**DENBORALDIAURREA**



Mondra futbol taldeko presidente Jose Luis Azkaratek eman zion trofeoa Erikori.

JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE HIRIA** | IBARREKO PREFERENTE MAILAKO HIRU TALDEAK ARITU ZIREN

## Arrasate Hiria hiruko txapelketan UDA izan zen talde sendoena

*Aloña bigarren postuan geratu zen eta etxeko taldeak azkeneko postuan amaitu zuen*

*Txapelketak balio izan du preferente mailako taldeek denboraldian izango duten maila ikusteko*

Arantzazu Ezkibel

UDA nagusitu zen Arrasate Hiria 23. txapelketan. Felix Recioaren mutilek talde sendoa erakutsi zuten Atxabalpen.

Arrasateko txapelketa ibarreko preferente mailako hiru taldeen artean jokatu zen. Hala,

lehenengo partidua Aloñak eta UDAn jokatu zuten. Nahiko partidu polita izan zen, lehia handikoa. Aretxabaletakoak ondo aritu ziren atzealdean. Hori dela eta, Aloñako aurrelariak ez zuten zulorik aurkitu UDAREN atea zulatzeke.

Aretxabaleta taldeko Igor Arriagak zelaia utzi behar izan

zuen 20. minutuan, belaunean min hartuta. Haren ordez zelairatu zen Garik sartu zuen partiduko gol bakarra.

UDAKo delegatua, Fito, pozik azaldu zen taldeak erakutsitako mailarekin: "Oso ondo aritu gara. Taldeak lan ona egin du, zelaian lekua hartuaz". UDarentzat bigarren partidua izan zen; egubakoitzean, Bergara Hiriko txapelketan, Mondraren aurka penaltietan galdu zuten.

**MONDRA ESKU HUTSIK**

Bigarren partiduan, Aloñak 1-0 irabazi zion etxeko taldeari. Partidu hasieran, Mondrak gola egiteko aukerak izan zituen, baina oñatiarrak oso ondo aritu ziren atzealdean.

Hala, 20. minutuan, Unai Moiuak Aloñaren gola egin zuen. Hortik aurrera, oñatiarrak gora

atera ziren eta aukera politak sortu zituzten, batez ere Henry Bazan bidez.

"Gustura geratu gara taldearen lanarekin. Atzealdean talde sendoa garela erakutsi dugu",

esan zigun Aitor Orueta Aloñako entrenatzaileak. "Denboraldiko lehenengo norgehiagoka izan da gaurkoa. Taldea gogor entrenatzen ari da eta hori zelaian nabari egiten da", azaldu zigun entrenatzaile oñatiarrak.

**DENBORALDI ZAILA**

Mondrak bigarren partidua berdindu egin zuen UDAREN aurka; hori dela eta, txapelketa Aretxabaletara joan zen. UDA taldeko kapitainak, Erikok, jaso zuen txapeldunaren saria.

Datorren astean hasiko da liga txapelketa. Preferenteko hiru taldeak buru-belarri ari dira lanean. Aloñak eta UDAn etxean jokatuko dute, Berio eta Pasaiaren aurka, hurrenez urren, eta Mondrak Trintxerperen aurka jokatuko beharko du. Denboraldi zaila izango da aurtengoa.

**Erikok jaso zuen UDA taldearen izenean garailearen trofeoa**

**Datorren astean hasiko dute liga; Aloñak eta UDAn etxean eta Mondrak kanpoan**

DENBORALDIAURREA

BERGARA HIRIA | JOKO ALDETIK PARTIDU ESKASA IZAN ZEN ZAPATUKO FINALA

### Partidu parekatuan, gol bakarra Garik egin zuen

ALOÑA MENDI

0-1

UDA

Mireia Bikuña

Aloñak eta UDAk gol aukera garbiak izan zituzten arren, gol bakarra ikusi zen Atxabalpen. Garik lortu zuen UDarendako.

Epaileak Aloñaren gol bat balio barik utzi zuen. Errematea egiterakoan Aloñako jokalaria falta egin zion atezainari.

### Gola lortu ondoren, Aloñak hobeto jokatu zuen

ALOÑA MENDI

1-0

MONDRA

Mireia Bikuña

Unai Moiuak 20. minutuan kórner erdiraketa baten gola egin ondoren, Aloñak hobeto menderatu zuen partidua.

Aurretik Mondrak izan zuen aukerarik markagailuan aurre hartzeko.

### Aukera garbiak izan zituzten arren, ez zuten golik egin

MONDRA

0-0

UDA

Mireia Bikuña

Mondrak eta UDAk gol aukera garbi asko sortu zuten. Hasierako minutuetan Lopezek izan zuen Modrarendako lehen gola egiteko aukera. Haren jaurtiketa kanpora joan zen.

Bide bera hartu zuten UDAk jokalaria Erikok egindako biak.

# Etxean geratu da Bergara Hiria txapelketa, Mondrari 2-0 irabazita

*Antzuola eta UDA finalerdietan kanporatu zituzten; hala, finala etxeko taldeak eta Mondrak jokatu zuten*

Arantzazu Ezkibel

Aparteko jokorik ez egin arren, merezitako garaipena eskuratu zuen Bergarak zapatuan Mondraren aurka. Bergara Hiriko finalean, 2-0 irabazi zuten etxekoek. Garaipen horrekin, txapelketa etxean gelditu zen.

Partidua nahiko motela izan zen joko aldetik. Hasierako minutuetan, Arrasateko taldea indartsuago aritu zen. Baloia jabetza izan zuten eta partidua erritmoa eramateko gai izan ziren. Hala ere, ez zuten aparteko gol aukerarik sortu.

#### BEHETIK GORA

Minutuak pasa ahala, Bergarak gola egin zuen. Poliki-poliki, baloia mugitzen hasi zen talde mahoneroa, eta gol aukera bat edo beste sortu.

Partidua 25. minutuan iritsi zen lehenengo aukera: Eloyk zelai erdian baloia hartu eta ezker hegaletik gola egin zuen, Mondrako atzelariak atzean utzita. Areara iristea lortu zuen jokalaria bergararrak, baina azkenean baloia galdu eta ez zuten jaurtiketa egiteko aukerarik izan.

Ondorengo jokaldian, Bergarako area ertzean Ruben lurrera erori zen. Falta eskatu zuten Arrasateko jokalariek,



JOSETXO ARANTZABAL

Horrelako partiduek probak egiteko balio dute; zapatuan jokalaria guztiek izan zuten jokatzeko aukera.

baina epaileak ezerezean utzi zuen jokaldia.

Lehenengo gola kórner baten ondoren etorri zen: kórnera atera eta Andonik, atzetik etorrira, baloia sareetan sartu zuen, buruz. Minutu gutxira, Mondrak Julenen bidez berdinketa eskura izan zuen, baina Arrasateko jokalaria indar barik jaurti zuen baloia eta kanpora bota zuen. Bigarren gola partidua amaitzeko gutxi falta zela sartu zuen Imanolek,

Canasekin egindako jokaldi batean. Emaitza horrekin buka zuen partidua etxeko alde.

#### PROBAK EGITEKO PARTIDUA

Bai Bergarako entrenatzaileak eta bai Arrasatekoak probak egiteko erabili zuten zapatuko partidua. Hala, jokalaria guztiek izan zuten jokatzeko aukera.

Norgehiagokak zoritzarreko jokaldia ere izan zuen: salto batean, Bergarako Txanpik eta

Arrasateko Lazpiurrek min hartu zuten. Mondrako jokalaria anbulantzia eraman behar izan zuten, buruan kolpea hartuta.

Partidu amaieran, sariak banatu zituzten. Etxekoek Bergarako txapelketako sari nagusia eraman zuten eta Arrasatekoek txapelkunordearen saria. Bestalde, Bergara taldeko Andoni Nafarrete jokalaria onenaren saria jaso zuen. Bergarako zaleak gustura geratu ziren etxeko mutilek egindako lanarekin.

• PREFERENTE MAILA

### Preferentean 18 taldek bakarrik jokatu dute

Mireia Bikuña

Aldaketa batzuekin dator aurtengo preferente mailako txapelketa. Nagusia, baina, futbol talde kopuruari dagokion da. 18 talde egongo dira preferente mailan eta horietatik lau dira mailaz jaitsiko direnak.

#### DENBORALDI ZAILA

Aldaketa horiek tarteko, denboraldi zaila izango dute bailarako hiru taldeek. Aloña Mendi iazko ilusioa mantentzen ahalginduko da. UDAk talde orekatua osatu du egindako fitxaketekin. Mondrak, aldiz, iazko ia talde bera izango du.

• PREFERENTE MAILA

### Mondra-UDA, bigarren jardunaldian

Mireia Bikuña

Mondrak eta UDAk preferente mailako bigarren jardunaldian neurtuko dituzte indarrak, Atxabalpen. Itzulerako partidua urtarriaren 28an jokatu dute.

#### BAILARAKO SEI DERBI

UDAk bigarren derbia Aloñaren aurka jokatu du: Ibarran abenduaren 3an eta Azkoagainen apirilaren 29an.

Aloñak, azkenik, Mondra hartuko du Azkoagainen urtarriaren 7an. Atxabalpen maiatzaren 20an jokatu dute.

Sei derbi jokatu dira preferenteko denboraldi berrian.

• LEHENENGO ERREGIONALA

### Jokalaria eta entrenatzaile berriak Bergaran

Mireia Bikuña

Denboraldi amaieran 14 jokalaririk eta entrenatzaileak taldea utzi zuten. Bada, jokalaria berri asko izango ditu Bergarak denborali berriari aurre egiteko. Neka Galan izango da taldeko entrenatzailea.

#### PREFERENTE MAILARA IGO

Iaz hain gertu izan zuten helburua lortu nahi dute bergararrak: erregional maila utzi eta preferente mailara igotzea.

Erregional mailako liga irailaren 16an hasiko du Bergarak, etxetik kanpo; Zumaiakoren aurka jokatu du.

• BIGARREN ERREGIONALA

### Mailaz igotzeko helburua du Antzuolak

Mireia Bikuña

Iaz igoera fasea jokatu arren, ez zuten igoera lortu. Antzuolako futbol talde nagusiak denboraldi ona egin eta lehenengo erregionalera igotzea du helburu. Andoni Azkargorta da taldeko entrenatzaile berria.

Taldeak liga irailaren 16an hasiko du; Eibartarrak taldearen bisita jasoko du.

#### KUOTA IGOERA

Batzar orokorrak bazkide kuantak igotzea onartu zuen. Bazkide eta jokalaria bakoitzak 23 euro ordainduko ditu. Datozen egunotan hasiko dira kobratzen.

SASKIBALOIA | BRUESA GBC

# Eskoriatzan jarri du Bruesak bazkide berriak egiteko bulegoa

*Intxaurtxueta kalean Eskoriatza elkarteak duen bulegoan eman beharko du izena interesa duenak*

*Bazkide txartelarekin, ligako 17 partidua ikusteko aukera izango da aurtengo denboraldian*

Arantzazu Ezkibel

Bruesa GBC taldeko bazkide egin nahi duenak egun hauetan izango du aukera bazkide txartela ateratzeko. Talde donostiarrak Gipuzkoako hainbat herritan jarri du abian bazkide kanpaina. Gurean, Eskoriatza kirol elkarteak Intxaurtxueta kalean duen egoitzan egongo da bazkide txartela ateratzeko aukera.

Egubakoitzean hasi zen kanpaina eta oraindik ez du inork izena eman. Gaur, arratsaldeko 6etatik 7etara egongo da irekita Bruesako bulegoa eta egubakoitzean ere egongo da irekita, ordu berean.

## BAZKIDE TARIFAK

Eskoriatza elkarteak Jabi Corbalek izango du bazkide kanpainaren ardura: "Bazkide egin nahi duenak Intxaurtxueta kaleko 9. zenbakian dugun bulegora etorri, formularioa bete eta kontu korrante zenbakia eman beharko du. Etorri ezin duenak

telefonoz ere dei dezake", esan digu Jabik. Telefonoak hauek dira: 660 534 879 edo 943 71 46 20.

Eskoriatzak 51 eserleku erosi ditu, guztiak goiko tribunan. Bazkide tarifei dagokionez, bi eratako tarifak daude: batetik, bakarkakoa; 150 euroren truke, bazkideak 17 partidu ikusi ahal izango ditu. Bestetik, familiarra; 325 euro balio du eta familia guztiak izango du aukera 17 partidua ikustera joateko.

## AUTOBUSA DOHAINIK

Bruesak autobusa jarriko du partiduetara joateko. Hala, ibarrek zaleek ez dute ezer ordaindu behar izango Donostiara joatearren. "Bruesakoekin egin ditugun bileretan, argi utzi diegu autobusa jartzea beharrezkoa zela", esan digu Jabi Corbalek.

Autobusa Eskoriatzatik aterako da partidua hasi baino bi ordu lehenago eta Aretxabaleta, Arrasate eta Bergaran ere geldituko da. Partidua domeketan izango dira, 19:00etan.



Maiatz amaieran Eskoriatzan izan ziren Bruesa taldekoak ACB ligarako igoera ospatzen.

GOIENKARIA

Hain zuzen ere, Bruesaren helburua da Gipuzkoa osoan ireki dituen zazpi bulegoetan 5.000 bazkide lortzea.

Izan ere, Bruesak Debagoienarekin duen harremana estua da. Hala, maiatz bukaeran gurean izan ziren ACB ligarako igoera ospatzen. Eta irailaren 24an, Bruesak Ukrainako Kieven aurka jokatuko du lagunartekoa Labegaraletan. Saskibaloitari bultzada eman guran antolatu du Bergara kirol elkarteak lagunarteko partidu ezin interesgarriagoa; puntuko bi talde gurean izango dira zaleen gozamenarako.

## Gipuzkoa osora hedatu nahi du saskibaloia zaletasuna Bruesak

Donostiarrak baino gehiago, gipuzkoarrak direla aldarrikatu nahi dute Bruesakoek. Hala, kanpaina horren helburuetako bat da gipuzkoarrak Donostiara hurbiltzea. Izan ere, ondo dakite Bruesako agintariak gure ibarreko jende asko Gasteizera joaten dela TAU Baskonia ikustera. Javi Corbalek esan digunez, Debagoieneko jendeaz gain, Gipuzkoako beste herri batzuetatik ere joaten da jendea Buesa Arenara, Gasteizera.

Javik uste du autobus zerbitzuarekin jende gehiago animatuko dela bazkide egitera. Modu honetan, Bruesak bermatu nahi du ibarreko zaleek bidaia egiteagatik ezer ez ordaindu beharra.

## Txirrindularitza

### Markel Irizar ondo, Espainiako Itzuliko etapa nagusian

A.E.

Markel Irizarrek ondo eutsi zuen Espainiako Itzuliko etapa nagusian. Helmugara 105. tokian iritsi zen, 29:45eko atzerapenarekin. Irabazlea Alexandre Vinokourov izan zen. Oñatiarra bigarren aldiz da Espainiako Itzulian.

Galizia eta Asturias artean ibili zen atzoko etapa. 207,4 kilometro eta lehenengo mailako hiru mendate izan zituen: Connio, Rañadoiro eta Cobertoria gaina (1.170 metro). Itzuliko etapa nagusia izan zen, eta sailkapenean aldaketak ekarri zituen: hain zuzen ere, lider berria CEI taldeko Alejandro Valverde da.

## TALDEKO LIDERRAK KALE

Sailkapen orokorrari begira, Markel 131. postuan dago, Alejandro Valverderengandik 1:19:45era. Lehenengo astean taldeko liderrek ez dute uste bezalako mailarik eman; hala ere, Irizar taldeari laguntzen ondo aritu da.



ARTXIBOA

Euskaltel-Euskadi taldearen helburua etaparen bat irabaztea izango da. Eta sailkapen orokorrean taldeko liderrak aurrean aritzea. Horren harira, Samuel Sanchez da Euskaltel taldeko lehen txirrindularia: 11. tokian dago.

## Golfa

### Mikel Galdos bederatzigarrena izan zen Iruñeko golf txapelketan


Mireia Bikuña

Asteburuan jokatu da Iruñeko golf txapelketa, eta, Tour Peugeotarako puntuagarria ez izan arren, bertan parte hartu zuen Mikel Galdos arrasatearra.

Eta egubakoitzeko eta zapatuko ibilbideak kontuan hartuta, sailkapeneko 9. tokian amaitu du txapelketa: "Emaitza ona da, baina ez dut gustura bukatu", aipatu zigun txapelketa amaieran Galdosek.

## LAU TXAPELKETA URTEA AMAITZEKO

Iruñeko txapelketaren ondoren Tour Peugeotarako puntuagarriak diren lau txapelketa jokatuko ditu Galdosek. Eta orain arte lortutako emaitzekin, datorren urtean profesional mailan jarraitzeko txartela eskutan du aretxabaletarrak: "Lehenengo urte izateko emaitza onak lortu ditut. Baina ez naiz horrekin korformatzen. Anbizio handikoa naiz eta txapelketa batzuetan emaitza hobek lortzeko auke-



ARTXIBOA

ra izan dudala uste dut", azaldu zigun. Gaur egun Tour Peugeot sailkapeneko 41. lekuan dago jokalaririk arrasatearra.

Profesional mailako lehenengo urteko emaitzarik onena Sevillan lortu zuen: zortzigarren tokian amaitu zuen.

## Mendi maratoia

• MONT BLANCEKO MARATOIA



GOIENKARIA

Bigarren egunean, behe-lainoa sartu eta euria eta hotza izan zuten lasterkariak.

# Debagoieneko ordezkariak Mont Blanceko maratoian

*Abuztuaren 25ean, 26an eta 27an, bi oñatiar aritu ziren Mont Blanceko maratoiko 158 kilometroak egiten*

### Asteleheneko Goienkaria

Jon Aizpeurrutia eta Iban Isasti oñatiarrak Mont Blanceko maratoian izan ziren abuztu amaieran. Oporrak aprobetxatuz, Chamonix (Frantzia) herrian hasi eta bukatzen den 158 kilometroko maratoia egin zuten. Hiru herrialde zeharkatu zituzten lasterkariak: Frantzia, Italia eta Suitza.

### 9.000 METROKO DESNIBELA

Euskal Herrian egiten diren lasterketekin alderatzen badugu, Mont Blancekoak metro tarte bikoitza du: "Kontuan izan, 9.000

metro gora eta beste horrenbeste behera egin behar izan genuela maratoian parte hartu genuenok", adierazi digu Jon Aizpeurrutiak.

"Egubakoitzean arratsaldeko 7etan hasi zen lasterketa eta domeka goizaldean bukatu genuen", esan digute oñatiarrek. Jonek 151. postuan bukatu zuen, 30 ordu eta 53 minutuko denbora eginda. Ibanek, berriz, 35 ordu eta 24 minutuan egin zuen eta 300. postuan amaitu zuen. Guztira, 2.538 parte-hartzaile izan ziren.

Maratoia Chamonix herrian hasi zen, 1.035 metroko garaieran.

Lasterketak izan zituen 158 kilometroetan, besteak beste, Grand Col Ferret (2.537 metro), Col de la Seigne (2.516 metro) eta Croix du Bonhomme (2.479 metro) igo behar izan zituzten.

### ANTOLAKUNTZA BIKAINA

Ibarreko lasterkariak oso pozik azaldu dira bai antolakuntzak eta bai ikusleek izan zuten jarrearekin: "Ibilbidean zehar, 15 kilometroan behin, jana eta edana izan genuen. Bidea ere oso ondo adierazita zegoen eta ikusle asko egon zen bide ertzean animuak ematen", esan digute.

## Herri kirolak

# Erakustaldi bikaina egin zuten atzo aizkolari eta harri-jasotzaileek

A.E.

Maika Aristegi, Maider Astigarragakoa, Flores, Biurrun eta Goenatxo III.a aritu ziren atzo Osintxun herri kirolean.

### 55 KILOKO HARRIA

Goenatxo III.a, Juan Joxe Goenatxoren 14 urteko semea, harri jasotzen aritu zen. 50 kiloko zilindroari 15 altxada eman ziz-

kion bi minutuan. Baina ikusgarriena 55 kiloko harri-jasotzea izan zen.

Aizkolariak ere lan-saio ona egin zuten: Maika eta Maiderrek 45 ontzako enborra moztu zuten. Maikak 98 kolpe behar izan zituen eta Maiderrek, berriz, 150. Azkenean, Maika eta Flores nafarrek eta Biurrun eta Maider gipuzkoarrek desafioa egin zuten.



JOSETXO ARANTZABAL

Goenatxo III.ak 50 kiloko zilindroa 15 aldiz altxatu zuen.



JOSETXO ARANTZABAL

Maider eta Maikak ikusmin handia piztu zuten Osintxun.

## Plater tiroketa

# Enrike Ullibarriaranak guztiak apurtu zituen

*Berdinketa hausteko txandan erabaki zen txapelketa*

### Mireia Bikuña

Lau parte-hartzailearen artean egin zen berdinketa hausteko txanda. Ignacio Alonsok, Jabier Gerenabarrenak, Jabier Fernandezek eta Enrike Ullibarriaranak 15 platerak apurtu zituz-

ten. Bigarren txandan bost platera ziren apurtu beharrekoak; Enrike Ullibarriaranek bostak apurtu zituen eta lehen saria jaso zuen: dirua eta urdaiazpikoa.

### ANTOLATZAILEAK POZIK

Plater tiroketa txapelketako antolatzaileek Markel Arrolabengoa gazteak egindako lana azpimarratu nahi izan zuten. 16 urteko aramaioarrak 13 plater apurtu zituen.

77 lagun aritu ziren zapatuan jokatu zen IV. Kurtzetagain plater tiroketa txapelketan.

## Sailkapena

### PLATERAK

1. Enrike Ullibarriarana (Aramaio) 15+5
2. Jabier Gerenabarrena (Bizkaia) 15+4+1
3. Jabier Fernandez (Burgos) 15+4+0
4. Ignacio Alonso (Leintz Gatzaga) 15+3
5. Jose I. Ullibarriarana (Aramaio) 14
6. Migel Zuloaga (Gasteiz) 14
7. Aiertza (Bizkaia) 14
8. Leoncio Diez (Gasteiz) 14
9. Jesus Inza (Oñati) 14
10. Gonzalo Olea (Amurrio) 14
11. Jesus M. Irabien (Amurrio) 14
12. Jose Luis Arjona (Burgos) 14
13. Oscar Garcia (Araba) 14
14. Jon Panadero (Araba) 14
15. Alejandro Poza (Araba) 14



JOSETXO ARANTZABAL

Enrike Ullibarriarana irabazlea prest platerak apurtzeko.

# Iruditlan



ARROLA ELKARTEA

**Sokatira Osintxun.** Bergarako Osintxu auzoko Kofradixa jaien barruan, hainbat joko egin zituzten. Zapatuan, egun nagusia ospatu zuten auzotarrek. Herri bazkaria egin zuten eta ostean, bertaratutako gaztetxoak sokatiran aritu ziren. Neska eta mutilez osatutako taldetan, nor baino nor gehiago aritu ziren. Irudian ikusten den moduan, gogorik, behintzat, jarri zuten txikiek, eta nagusien animuak ez ziren falta izan.



JOSETXO ARANTZABAL

**Pilota Osintxun.** Osintxuko Kofradixa jaietan atzo jokaturako partiduetan, Dani eta Jokin 18-14 nagusitu ziren Paul eta Pelloren aurka. Lau t'erdian, berriz, Atxotegik 12-18 irabazi zion Larrañagari.



ARROLA ELKARTEA

**Toka eta igel jokoa Bergarako San Lorentzo auzoko jaietan.** Tokan, Jesus Mari Elkoroberezibar izan zen txapelduna. Bigarren Onesimo Manzano izan zen eta hirugarren, Javier Alfaro (goiko irudian). Igelean, Juan Carlos Marquez gailendu zen. Bigarren Alberto Etxaniz izan zen eta hirugarren Antonio Maestre.






# EGIZU BIDAIA DENBORAN IRUÑA VELEIArekin

Zure zain gaituzu, Gasteizko Boulevard dendagunean,  
ALAI PLAZAKO LANTEGIETAN, IRAILAREN 8tik 15era.

Ikas ezazu togak egiten, idatz ezazu latinez zeramikari buruz,  
eta goza itzazu zuretzat prestatu ditugun jokoak.



**Kaña zuk zeuk atera!**

**Kartan:**  
berezitasun alemanak  
(ukondoa, haragi-pastela,  
saltxitxak,...), ensaladak,  
arrazioak eta plater  
konbinatuak.

**Gosariak • Garagardo karta**

**Terraza**

**Pintxo hotz eta beroak**

**PAULANER**  
MÜNCHEN

**PAULANER**  
Bierhaus

Iparagirre 2  
Bergara  
Tel.: 943 53 43 68

**Egunero irekita**  
Aste barruan 9etatik aurrera  
Asteburuetan 11etatik aurrera

Maika Aristegi iturendarra herri kirolen munduan oso ezaguna da. Aizkoran aritzen da, Astikgarragako Mainerrekin batera. Atzo, Osintxun izan ziren, Kofradixako

jaietan. Maika 17 urterekin hasi zen kirolaren munduan. Lehenengo krosetan parte hartzen hasi zen eta gerora herri kirolelara pasa zen. Gaur egun 34 urte ditu

eta plazetan jarraitzen du, herrietako jaiak girotuz. Esan digunez, jendea harritu egiten ohi da neskak aizkoran ikusita, baina zaleek animu asko ematen diote.

MAIKA ARISTEGI | AIZKOLARIA

# “Jendea harritu egiten da neskak aizkoran ikusita”

Arantzazu Ezkibel

**Nola sartu zinen herri kirolen munduan?**

Niri korrika egitea asko gustatzen zait. Hasiere batean, krosetan hasi nintzen, lasterketa ezberdinetan parte hartzen. Nafarroako eta Euskadiko txapelketetan ere aritu nintzen. Gero, herri kirolelara pasa nintzen, lehenengo txingekin eta gero, herri kiroleko fitxa egin, eta aizkoran hasi nintzen.

Arraroa izan arren, ez da familiarik dator kidan zaletasuna; nire etxean ez da inor herri kirolean ibili. Baina baserrian bizi garenez, ohituta gaude horrelako lanak egitera, baina ez kirol bezala.

**Ze modalitate da gehien atsegin duzuna?**

Esan bezala, niri gehien korrika egitea gustatzen zait. Azken finean, samurrena ere bada. Ez duzu ezer behar, oinetakoak jarri eta kalera ateratzen besterik ez duzu.

Aizkoran aritzea ere gustuko dut, baina kirol gogorragoa da. **Jendea harritu egiten da plazan neska bat ikusita?**

Bai, eta batez ere aizkoran ikusten gaituztenean. Jendea ohi-tuago dago aizkoran eta txingetan mutilak ikustera.

Neska izateagatik ez dut inolako bazterketarik jaso. Gehiago esango dizut, jendeak plazetan ikusten gaituenean asko txalotzen gaitu. Jendea gustura egoten da gu ikusten.

**Zenbat neska ari zarete herri kirolean?**

Txingekin eta ingudearekin neska gehiago arituko dira, baina aizkoran, orain arte, bi besterik ez gara aritu: Ana Berasategi eta biok. Orain, Astigarragako beste neska bat ere hasi da. **Indarra ala burua, zer da garrantzitsuagoa?**

Nik uste dut dena dela garrantzitsua. Batzuek indar handia izaten dute eta ezin bukatu aritzen dira. Beldurragatik-edo, ezin

asmatu aritzen dira. Dena behar da; indarra, burua eta, batez ere, beldurrik ez izatea.

**Aizkoran aritzeko beso gogorrak izan beharko dituzu.**

Bai, aizkoran aritzeko, beso eta gerri gogorrak izatea ezinbestekoa da. Batzuetan, gogor egon arren, bizkarreko minez bazaude, ez duzu deus egiten. Gerria oso garrantzitsua da.

**Entrenamenduak egiten dituzu ala baserriko lana nahikoa da?**

Ni korrika aritzen naiz eta horrekin fisikoa egina daukat. Bestela, aizkoran aritzen naiz zerbait, baina ezer gutxi. Ez dut gimnasia joateko ohiturarik.

Aparteko gauzarik ez dut egiten, baserriko lanarekin nahikoa izan dut orain arte.

**Lesiorik izan al duzu?**

Nik neuk momentuz ez dut lesiorik izan. Gero ez dakit zer izango den, baina momentuz oso pozik nago.

**Aurtengo Nafarroako txapelketan, berreskuratu al duzu titulua?**

Aurten ez dut titulua berreskuratzerik izan. Uztailean jokatu zen Nafarroako txinga txapelketa eta bigarren postua eskuratu nuen. 14 plaza egin nituen; oso gustura gelditu nintzen txapelketan egindako lanarekin.

Aurreko urteetan, birritan izan naiz txinga eta ingude pro-

**“Arraroa izan arren, ez da familiarik dator kidan zaletasuna”**

**“Indar handia izan arren, batzuk ezin bukatuta aritzen dira, asmatu ezinik”**



Atzo Osintxuko jaietan aritu zen Maika aizkora lanetan.

betan txapeldun. Aizkoran ez da txapelketarik egiten, baina bali-teke datorren urteari begira egitea. Horrelako txapelketa bat antolatzeke, gutxienez hiru parte hartzaile behar dira, eta, esan bezala, orain arte bi besterik ez gara izan.

**“Aurten ez dut Nafarroako txinga titulua berreskuratzerik izan”**

**“Plazetan, probintziaren arabera, zaleen gustuak ezberdinak izaten dira”**

**Herri kirolek jaten ematen al dute?**

Ez, gu ez gaude mundu honetan oso sartuta; beraz, ez gara kirola egiteko bizi. Horretan buru-belarri dabilen jendeak, plazetan ari den bitartean, badu bizi izaterik; batez ere gizonek eta aikolariek. Baina plazetan aritzen garen ia guztiok beste lanen bat dugu.

**Herri kirolak Olinpiar Jokoetan ikusiko al ditugu inoiz?**

Hori zaila dela uste dut, Olinpiar Jokoak beste maila bat dira. Herri kirolean ari garenak zale-tasun bezala dugu kirola egitea.

Olinpiar Jokoei joateko asko entrenatu beharra dago, Gainera, oso zaila ikusten dut. Hala ere, ez dut inoiz ilusiorik izan horri dagokionez.

**Izan al duzu maisurik, aikoran erakutsi dizunik?**

Bai, batez ere baserriko jendeak erakutsi dit. Hemen, baserrian, badira aikora gustuko dutenak. Herriko festetan-eta ari-

tzen dira eta haiek erakutsi didate nola hartu behar den aikora eta nola moztu.

**Nor da gehien miresten duzun aikolaria?**

Mindegia. Txiki-txikitatik ezagutu dut. Plazan urte askoan ari den aikolaria da. Mindegia da gehien gustatzen zaidana. Meritu handia du, eta horregatik gustatzen zait.

**Ze proba da plazetan jendeak gustuko duena?**

Tokiaren arabera izaten da. Nafarroa aldean, adibidez, jendeak aikora du gustuko. Beste toki batzuetan, Araban esaterako, sokatira gurago dute. Probintziaren arabera ezberdintasunak egoten dira.

**Atzo Osintxun ze erakusketa egin zenuen?**

Aizkoran aritu nintzen, 45 ontzako hiru enborrekin. Bat kolpetara egin genuen eta beste biak zeinek lehenengo moztu. Maiderren aurka aritu nintzen.

**DANBAKA))))))**

**Debagoieneko II. Musika Lehiaketa**

**PARTE  
HARTU  
NAHI?**

**Izena emateko azken eguna: irailak 19**

◆  
INFORMAZIO GUZTIA:

**[www.danbaka.com](http://www.danbaka.com)**

# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Pailazoak, zinema eta rock kontzertua dira hil hasierako kultura eskaintza | 27
- Debagoieneko filmak emango dituzte Donostiako Zinemaldian | 27

Doctor Deseok eta  
Rafa Ruedak jende  
asko batu zuten  
zapatuan  
Monterronen | 22

## COUNTRY KONTZERTUA



Danni Leigh estatubatuarra eta bere taldea zapatu gauean Oñatin egindako kontzertuan.

JOSETXO ARANTZABAL

**COUNTRY KONTZERTUA** | OÑATIKO ATZEKO KALEKO PLAZAN IZAN ZEN KONTZERTUA ZAPATUAN, 23:00ETAN.

# Bergararrak protagonista Oñatin, Danni Leigh taldearen kontzertuan

*Danni Leigh  
Virginiako  
abeslariaren  
taldeak country  
musikaz  
gozatzeko aukera  
bikaina eskaini  
zuen zapatu  
gauean Oñatiko  
Atzeko kalean  
egindako  
emanaldi  
paregabean*

Goreti Elortza

Primerako kontzertua izan zen zapatu gauean Danni Leigh virginiarrak eta bere taldeak emandakoa. Gaueko hamaiketan hasi zen Oñatiko Gazteria Sailak antolatutako kontzertua eta ordu eta erdi luze iraun zuen. Atzeko kaleko plaza bete egin zen country jaialdian.

Oñatiar asko animatu zen plazara, baina bergarrena izan zen aurreko alde guztia. Izan ere, *Poti* (Iñigo Gallastegi) bergararra da taldeko bateria-jolea, eta bere lagun eta senideek ez zuten hutsik egin.

Cowboy jantzita irten zen Danni eszenatokira eta bere ahots izugarriarekin gerturatutakoak

liluratu zituen. Taldearen laugarren diskoa aurkeztu zuten, *Not Forgotten* izenekoa. Abesti gehienak azken disko horretakoak izan ziren, eta beste disko-etako kantu batzuk ere tartekatu zituzten.

Danni Leigh (ahotsa eta gitarrak), Adam Roach (gitarra), Mike Mckenzie (baxua) eta Iñigo Gallastegi *Poti*-k (bateria) osatzen dute taldea. Country garbia egiten du gaur egun Bartzelonan bizi den taldeak eta Europa osoan egiten ditu kontzertuak.

### LAU BERGARAR TAULA GAIANEAN LEIGH-EGIN

Kontzertuan zehar hiru bergarar deitu zituen Adam Roach gitarrak joleak oholtzara. Jesus Martinez

(koroak), Josu Zeziaga (akordeoia) eta Asier Elortza (trumpeta eta ahotsa) igo ziren eta zazpiek batera tex-mex erritmoan bi abesti eskaini zituzten gerturatuen

**'Not Forgotten'**  
taldearen laugarren  
diskoa aurkeztu  
zuten Oñatin

Hiru bergararrek  
izan zuten aukera  
taula gainera igo  
eta parte hartzeko

gozamenerako. Benetan ondo moldatu ziren taula gainean *Poti*-ren lagunak. Josu Zeziagak akordeoiarekin beste bi abestitan ere hartu zuen parte Danni Leigh-en taldean. Oso giro polita sortu zuten.

### AZKEN DISKOA SINATZEN

Kontzertua bukatzeaz zegoenean, jendeak gehiago eskatu zuen eta beste lau edo bost abesti jo zituen laukoteak, energia handiz.

Amaitu zenean, euren azken diskoa erosi zuen jende askok, *Poti* eta taldekideen sinadura eta dedikazio eta guzti. Taldekideek bikain hartu zuten hurbildutako jende guztia eta talde bikaina osatzen dutela argi utzi zuten. Ea berriz ikusteko aukera dugun!

KONTZERTUA

IÑIGO GALLASTEGI 'POTI' | BATERIA-JOLEA

# "Hemen ez bezala, zale asko ditu country musikak Europa aldean, Frantzian batez ere"

Goreti Elortza

**34 urteko Bergarako bateria-joleak hiru talde desberdinetan dihardu eta musika estilo desberdinetan sentitzen da eroso. Egun Bartzelonan bizi da.**

**Zenbat urterekin hasi zinen bateria jotzen?**

16 urterekin nire lehen bateria erosi nuen. Beste lagun batek gitarra hartu eta Zaztada taldea sortu genuen. Punk-rocka egiten genuen. Gero Fucking What talde heavyan eta The Basque Country taldean ere aritu nintzen. Azken horretan countrya egiten genuen.

**Nola sortu zitzaizun countryrako zaletasuna?**

Egia esan, heavya nuen oso gustuko gazteagotan, Metallica batez ere. Metallica taldekoei countrya gustatzen zitzaielako sortu zitzaigun interesa. Dwig Yoakam izan zen ezagutu genuen lehena.

**Eta geroztik countryzale amorratua zaitugu...**


Musika estilo asko gustatzen zaizkit, ez bakarra. Egun, hiru taldetan dihardut bateria jotzen. Rocka, bluesa eta countrya tartekatzen ditut une honetan. Bartzelonako The Redneck House Band izeneko taldean, Danni Leigh-ekin eta beste rock talde baten.

**Zein estilotan sentitzen zara eroso?**

Eroso sentitzen naiz hiru estiloetan. Gainera, Bartzelonako taberna txiki baten bluesa egiten edota Frantziako makro jaialdi baten countrya egiten disfrutatzen dut. Hori da zoragarriena, egiten duzunarekin disfrutatzea.

**Nolatan hasi zinen Danni Leigh eta bere taldearekin jotzen?**

Jaialdi baten ezagutu genuen elkar orain urte batzuk. Nik beste talde batekin jotzen nuen jaialdi berean. Duela urtebete inguru Bartzelonara etorri ziren bizi



JOSETXO ARANTZABAL

Iñigo Gallastegi Poti zapatuan Oñatin.

izatera Danni eta bere taldekideak eta euren bateria-jolea New Yorkera joan zen. Tarteko lagun batek nire berri eman zien eta orduan proposatu zidaten. Aukera handia iruditu zitzaidan eta baiezkoa eman nien. Oso esperientzia polita da.

**Gustura al zabilta taldearekin?**

Oso gustura nabil. Europa osoan egin ditugu kontzertuak, eta hori zoragarria da. Musikari handiak gertutik ezagutzeko aukera eman dit horrek. Ametsa bezala da. Abuztuan, esate

rako, Belgika eta Frantzian izan ditugu kontzertuak.

**Zein izan da orain arteko kontzertu hunkigarriena?**

Danni Leigh-ekin Suitzian emandako kontzertu bat dut gogoran. 5.000 pertsona batu ziren eta oso hunkigarria izan zen niretzat. Ikusgarria zen hura!

**Country musika estiloak harrera ona al du Euskal Herrian?**

Euskal Herrian ez du zale askorik country musikak, eta Espainian ere nahiko gutxi. Europa aldean, ordea, Frantzia eta Suitza aldean bereziki, zaletasuna benetan handia da.


**Zaletasunekin jarraituz, ba al duzu igerilekura joateko astirik?**

Entrenatzera joaten naiz ahal dudanean, baina orain ez naiz lehiatzen. Beteranoetan lehiatzen nintzen lehenago. Orain gero eta gutxiago joaten naiz, astebururo dut eta kontzerturen bat...

**Zenbat urte daramatzazu herritik kanpo?**

28 urterekin-edo joan nintzen San Frantzisko aldera eta orain 34 dauzkut. Gero, Malagan bizi izan nintzen eta egun Bartzelonan bizi naiz. Hori bai, ahal dudanean etortzen naiz familia eta lagunak ikustera!

• KONTZERTUAN EGON ZIREN



MARIAN, MON, ELI, JOSE, BARBE ETA ELI | OÑATI

Oñatiko koadrila honek oso gustura entzun zuen kontzertua. "Egia esan, ez dugu horrelako musika sarri entzuten, baina izugarri gustatu zaigu kontzertua", esan zigun Marianek. Dantzara ere animatu ziren bost lagunak, eta parrandarekin jarraitzeko asmoa zuten...



'POTI'-REN KOADRILAKOAK | BERGARA

Bateria-jolearen koadrilakoek ez zuten euren laguna taula gainean ikusteko aukera galdu. "Begarako jaietan ere izan ziren, baina beste musika mota bat egiten zuten. Guztiak primeran egon dira, baina Danniaren ahotsa izugarria da, kontzertu bikaina!", zioten.

## Arrasaten kokatutako komunikazio enpresa batek Diseinatzaile grafikoa

behar du.

**Ezagutu beharrekoak:**

FreeHand.

Photoshop.

QuarkXPress.

**Kontuan hartuko dira:**

Webgintzan, CSS edo estilo orriekin diseinatzen jakitea.

**Ezinbestekoa da:**

Antzeko lanetan eskarmentua izatea.

Euskaraz jakitea.

**Curriculumak bidaltzeko:**

132 posta-kutxa

20500 ARRASATE (Gipuzkoa)

("Diseinatzaile grafikoa" erreferentzia jarri)

**Curriculumak jasotzeko azken eguna:**

2006ko irailaren 13a.

"Heavya nintzen lehen; Metallica entzuten nuen, eta eurei esker ezagutu nuen countrya"

"Jaialdi baten ezagutu nuen Danni Leigh, eta orain bere taldeko bateria-jolea naiz"

"Europa guztian egin ditugu kontzertuak, baina Suitzakoa izan da hunkigarriena"

"Musikari handiak gertutik ezagutzeko aukera izan dut, eta hori oso handia izan da niretzat"



JOSETXO ARANTZABAL

Sasoi onean jarraitzen dute Doctor Deseoek, zapatuan erakutsi zuten moduan.

**DOCTOR DESEO** | SAN JUANETAN BERTAN BEHERA UTZI BEHAR IZAN ZUTEN KONTZERTUA EGIN ZUTEN ZAPATUAN

# Alde batetik zirikatu eta beste aldetik hunkitu, horra Deseoekoen errezeta

*Ohiko ikuskizun emozional eta suharra egin zuten zapatuan ere bilbotarrek Arrasaten*

*Disko berria aurkezteko aprobetxatu zuen, baina abesti mitikoek ez zuten huts egin, zaleen gozamenerako*

Jon Berezibar

Doctor Deseoren kontzertu batera doanak badaki zer aurkitu behar duen, ez errepikapenaren errepikapenez ezustekorako ahalmena erabat galdua dutelako Deseoek, baizik eta taldeak urteen indarrez eta burugogorkeria handiarekin bere-berea duen izaera eta eszenatokian egoteko modua landu duelako. Euren marka da hori, eta jarraitzaileak ondo daki zer aurkituko duen Francis eta koadrilarekin.

San Juanetan euriaren mehatxuak kontzertua zapuztu eta gero, zorra kitatzera etorri ziren bilbotarrak Arrasatera. *Detras de los espejos rotos* euren azken lana aurkeztu zuten zapatuan Monterronen, eta behin

bertan zeudela, Francisek ez zuen aukera galdu Fagor edo Eroskiri buruzko bere miropena agertzeko edota *Agur, Bergara* oihukatuz agurtzeko. Beti

Emozionala eta bizia izan zen kontzertua, Deseoekoen ohiko ikuskizuna

Ikusleak hasiera hotz bazeuden ere, berehala jaitsi ziren zaleak lehen ilaretara

bezain zirikatzaile, hasieran ikusleak hotz bazeuden ere, berehala animatu zituen abeslariak zaleak lehen ilaretara.

#### **DISKO AURKEZPENA**

Kontzertuaren hasierako zatia disko berrian oinarritu zen hein handi baten, abesti borobil eta hunkigarriekin. Geroago etorri ziren Deseoekoen kantu mitikoak, jarraitzaileek hasieratik amaie-

rara abestu zituztenak. Jakina zenez, Francisek ez zuen Monterongo oholtzak ematen dion aukera galdu eta eszenatokiko burdinetan gora eta behera ibili zen kanturik kantu hamarratzarena egiten. Ikusleekin ere jator ibili ziren Francis eta lagunak eta kontzertu osatua egin zuten; aipagarriak izan ziren *Aquellos ojos negros* (kontzertua ireki zuten honekin), *Dulces sueños* edo *Peces*

*abisales*, klasiko bihurtzeko bidean den disko berriko kantu berritan ikaragarria.

Emozionala, zirikatzailea, suharra eta bizia izan zen zapatukoa. Doctor Deseoren ohiko kontzertuetan moduan. Sasoi onean daudela erakutsi zuten eta urte askotarako daukatela, nahiz eta urteak eginak izan elkarrekin. Emanaldia ohiko bis eta abesti klasikoekin amaitu zuten.

## Rafa Rueda eta taldekideek berotu zuten lehenengo oholtza, Doctor Deseoek erretzen amaitzeko

Inor PiLT taldearen garaietatik Ruedaren aztarnak galduta badabil, agian zapatukoaren moduko saioekin harrituta gera daiteke. Talde ohiarekin euskal metalean zeresan handia izan eta gero, pop melodiakoaren babesean egin du bere gotorleku txikitxo mungiarrik. Ruedaren azken boladako ibilbidearen berri izan ez duenak agian ez dakiena da dagoeneko bigarren bakarkakoa aurkezten dabilela eta estilo aldaketarekin gero eta erosoago dagoela musikaria, antzinako gitarra astunak ahaztuta. Hau jakinda, askok muturra okertuko dute, poperanzko noranzkoa aldaketak *traiziotzat* hartuta, baina metalaz harantzago bizitzarik badela

sinesten dutenendako emanaldi gozagarria izan zen zapatukoa. Taldea osatzeko maila itzelezko musikariak oholtzaratu ditu Ruedak eta soinu aldetik paregabea izan zen eskaini zutena. Egia da PiLTekin egurra ematen zuenean oso gustuko genuela askok, baina Ruedak aski frogatua dauka musikari eta ekoizle moduan duen tamaina (*Ehungarrenean hamaika* Lauaxetari egindako tributua egundokoa da) eta poparen alde azukretuari ere puntua eta neurria hartzen hasi zaiola ematen du.

Ikusleen aldetik giro polita egon zen Monterronen eta Ruedak ere behin baino gehiagotan adierazi zuen bera ere ez zebilela batera txarto pasatzen.

## Arabako Nazioarteko Abesbatzen Jaialdiko saioa etzi Aramaion

A.G.

Aurten ere Aramaio izango da Arabako Nazioarteko Abesbatzen Jaialdiko emanaldi bateko gune Hain justu ere, etzi, eguaztena, Alemaniatik etorritako abesbatza batek saioa egingo du herriko elizan, 20:00etan hasita. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolatzen du jaialdia, eta aurten 25. urtemuga ospatzen duenez, hainbat herrialdeko taldeak etorriko dira jaialdira, hala nola: Kubatik, Poloniatik, Filipinetatik, Mexikotik, Txekiar Errepublikatik eta Errusiatik.

Hainbat urte dira jaialdiko emanaldiren bat Aramaion egingen dutela, eta antolakuntza lanetan Udalak eta Bixente Goikoetxea abesbatzako kideek laguntzen dute.



Bixente Goikoetxeako kideak.



JOSETXO ARANTZABAL

Des-Kontrolkoak, oholtzaren jaun eta jabe



JOSETXO ARANTZABAL

Fly Shitekoek ere tinko eutsi zioten.

ROCK JAIALDIA | AZKAITER PELOX, DES-KONTROL, FLY SHIT ETA SEÑOR NO

## Bailarako selekzio bikaina eta hiriburutik beterano indartsu batzuk

*Kartel mamitsua gertatu zuten zapatarako Osintxuko Jai batzordekoek, gitarra astunekin*

Asteleheneko Goienkaria

Punk eta rock erakustaldi indartsua egiteaz arduratu ziren zapatu gauean Osintxun kontzertuetarako gonbidatutako taldeak. Ibarreko hiruk jo zuten

(Azkaiter Pelox, Des-Kontrol eta Fly-Shit) eta Donostiatik Señor Nokoak etorri ziren, gaubelari beteranotasun puntu bat emate aldera-edo.

Bergarako Azkaiter Peloxekoak hasi ziren lehenengo. Aspaldiko partez talde osoare-

kin, Unai Azkarete eta lagunek rock gau luzeari eman zioten hasiera. Izan ere, 04:30ean amaitu zen jaialdia, Señor No taldearekin, hain justu.

Lekukoa Des-Kontrolkoek hartu zuten. Ohi bezala, jarraitzaile ugariarekin, jaialdiren jaun

eta jabe egin ziren arrasatearrak berehala.

Gogorren, hala ere, Bergarako Fly Shitekoek eman zuten egurra, hard-core zartakoka, oholtza ia txikitu arte.

**BETERANOAK AZKEN**

Señor Nokoek izan zuten jaialdi mamitsua ixteko ardura. Goizeko ordu txikiak arte ibili ziren donostiarrak rock-and-rollaren maisu direla erakusten. Oholtza gaineko urteek energiari lapurtu ez dietela erakutsita, benetan konbentzitu zuen emanaldia egin dute oraingoan ere.

Jarraitzaile asko joan ziren Des-Kontrol taldea ikustera

Beteranoek erakutsi zuten urteak ez direla alferrik pasatzen

# 12



**Egin zaitez harpidedun orain eta urte amaierara arte etxean jasoko duzu Asteleheneko Goienkaria. Dei bat egin eta kitto!**




Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**


Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



# UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHE

Argazki guztiak fotoblog honetan:



**MORRAINE LAKUA.** Kanadan izan dira eztei-bidaiari. Ainhoak dioskunez, ez zuten oso eguraldi ona izan, baina hori ez da eragozpen izan ondo pasatu eta paisaia ederrak ikusteko; goikoa, horren adibide. /Argazkia: Ainhoa Arantzabal /Arrasate



**ARDO FRESKOA.** Biasteriko upategi batera irteera egin zuen lagun koadrilak 2003ko abuztuan. Bazkalaurretik upategia ikusi zuten. Kanpoan egiten zuen beroarekin fresko zegoen ardoa, sotoan gordeta. /Argazkia: Juani Labrador /Arrasate



**KAZKABARRA.** Ekainean Italiako Alpeetan izan ziren Jon, Eneko eta Jon. Aosta-ko bailaran dagoen Gressoney-La Trinite herrian egin zuten argazkia. Zerua batean ilundu eta begira zer egin zuen. /Argazkia: Jon Urteaga /Aretxabaleta



**JACUZZI ONENA.** Iaz egin zuten argazkia, Galapagos uhartean. Animalia ugari ikusi zuten, eta gaizki ezin da esan gaizki bizi direnik: irudiko itsas lehoi horrek, behintzat, jacuzzi partikularra dauka. /Argazkia: Martin Uriarte /Arrasate

## Baldintzak:

### Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea zabalik dago 2006ko irailaren 18ra (astelehena) arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean

erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).

- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
  - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
  - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
  - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.

- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta jpg formatuan.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, eta abar).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 25eko ASTELEHENEKO GOIENKARIAN.

- Urriaren 2ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAN aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaia baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAREN artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.



# NEKO GOIENKARIA II. LEHIAKETA



[www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)



**SORIAN DINOSAURIOEKIN.** Brachiosaurus honi muxu eman behar ziola erabaki zuen Enarak, eta 25 metro luze, 40 tona eta 12 metro garai izan arren, lortu zuen bere helburua. /Argazkia: Igor Arizmendiarieta /Elgeta



**ZEPPELING-A ZURRIOLAN.** Iazko udan egin zuten argazkia. Donostiako Zurriola pasealekuan zeudela Gran Zeppelinak lur hartu zuen han. Hondarribiara zihoan eta airerik gabe geratu ei zen. /Argazkia: Josu Unamuno /Bergara



**GUZTIA MENDIA OTE?.** Pirinioetako Anciles herrian egin dute argazkia, abuztuaren. Etxetxoaren arbelezko teilatuak atzeko mendi tontorren lagun egin nahi duela dirudi. /Argazkia: Jon Urkia /Arrasate



**AMAMAREKIN NOJAN.** Leire, Markel eta Eider Nojan izan dira abuztuaren. Igerilekura joan ziren egunetako baten egin zuten argazkia, amamarekin. Leirek kontatu digunez, amamak oso ondo zaintzen ditu. /Argazkia: Leire Egaña /Oñati

## Sariak



**1. saria: Olympus E-500 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik. 8 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-45 mm eta 40-150 mm. / Flash eta guzti. / 2,5 pulgadako HyperCrystal LCD pantaila.



- **2. saria:** Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

## Babeslea:



## Laguntzaileak:



**GURE AMETSA**  
JATETXEA

Egubakoitzean, Arabako Nazioarteko Abesbatzen Jaialdiko 25. urteurren kontzertuan, Urrezko Zeledon ikurra emango diote Sabin Salaberri

aramaioarrari, hainbeste urtetan Gasteizen musikaren inguruan nekaezin lan egiteagatik. Irakasle, hamaika abesbatzaren sortzaile zein gidari,

Gasteizko Kontserbatorioko zuzendari eta oraindik ere, erretiratuta egon arren, saltsarik saltsa dabil Salaberri. Merezitako errekonozimendua jasoko du barikuan.

SABIN SALABERRI | MUSIKARIA

# "Euskarazko mezetan nabari izaten da euskal doinuen izaera berezia"

Jon Berezibar

**Irakaskuntza eta abesbatzak izan dira lan handien egin duzun alorrak?**

Irakaskuntza eta kontserbatorioko zuzendaritza, batez ere: taldeak sortu, Gasteizko Gazte Orkestra, ekitaldiak antolatu... kontserbatorioko jendearekin gauza asko egin ditugu.

**Abesbatzetan interes berezia izan duzu betidanik.**

Gaztetatik, Seminarioan Escola Cantores zuzendu nuen 17 urtez, Arabako Nazioarteko Abesbatzen Jaialdia... Hor inguruan asko mugitu naiz. Aramaion bertan musika ikasten hasi nintzen abesbatzan abesten eta pianoa jotzen. Horretaz gain, musika idazteko oso joera bizia daukat.

**Euskal folklorea berreskuratzen ere ahaleginak egin dituzu.**

Umetatik oso maite izan ditut gure antzinako abestiak. Horieta asko abesbatzetzat harmonizatzen egin dut lan. Gainera, uste du nire musika idazkeran beti nabaritu izan dela euskal kutsua. Europako eta Espainiako abesti herrikoiak ezagutzen ditut, eta euskal abestiek badute soinu berezia.

**Erretiratuta zaude orain. Hartzen duzu astirik atseden egiteko?**

Ez naiz geratu ere egiten. Jendea etortzen zait eta guztiak eskatzen didate, orain denbora luzeagoa dudanez, ea ez ote dieran lagunduko hau ala bestea antolatzen edo zerbait egiten, eta beti nabil lanpetuta, saltsetan. Oso harrapatuta ibiltzen naiz, ze nagusientzat eskolak ematen baititut eta Gasteiz Irratian ere makina bat urte daramatzat astero-astero musika saio batekin, musika idazten dut, abesbatzak zuzendu, harmonizatzen laguntzen dut... Denbora falta zait. Baina beste erritmo batekin egiten ditut zereginok. Lanera joan behar duzunean goizeko zortzietan joan behar duzu, eta orain zortzietan gogo handirik ez badut,

ba bederatzietan hasten naiz. Hor dago aldea.

**Jende nagusiari eskolak ematea ere berezia izango da.**

Oso polita da. Ni beti gazteen irakasle izan naiz, kontserbatorioan eta ikastolan. Nagusiek ez dute azterketa bat gainditzeko ikasi behar eta gustura etortzen dira musika nola entzun ikastera, eta oso atsegingarria da. Nik beti esaten diet gehien gozatzen duena ni neu naizela. Norbera gustura dagonenean besteak ere hala egon ohi dira.

**Musikak egungo hezkuntzan dago-kion garrantzia dauka?**

Alde batetik, gaur egun inoiz baino musikari gehiago daukagu Euskal Herrian; alor guztietan, gainera: zuzendaritzan, konposaketan eta instrumentuetan, filmetako soinu-bandak egiten dituztenak... Bestalde, instituzio aldetik ez dago babes handirik.

**Abesbatzak ere susperraldian daudela ematen du?**

Gaur egun maila gorena dago, eta ez bakarrik betiko abesbatzei dagokienez, Donostiako Orfeoaren moduan. Abesbatza asko sortu dira eta oso onak dira, orain arteko prestakuntza maila altuagoarekin, gainera. Nazioarte mailan ere aipatzeko modukoak direla iruditzen zait. Tradizioa eta zaletasuna dago. Beste gauza



Erretiratuta ere, musika da Sabin Salaberriren bizitzaren ardatzetako bat.

ARTXIBOA

batzuen artean, euskal elizkizunetan nabari da hori. Euskarazko hileta baten, adibidez, abestiek beste soinu aberatsago bat dute, gaztelarazkoekin alderatuta; erdarazko elizkizunetara joatean arima lurrera erortzen zait, aldea ikusita.

"Nire musika idazkeran beti nabari izan da euskal kutsua, betidanik maite dut folklorea"

"Nagusiei eskolak ematen, haiek baino gehiago nik gozatzen dut musika entzuten erakusten"

"Inoiz baino prestakuntza maila altuagoa daukate gaur egungo abesbatzek"

"Denbora falta zait orain; erretiroan bai, baina beti nabil lanpetuta, mila saltsetan sartuta"

## Txikitatik bokazioari heldu eta oraindik ere ezin nekatu musikaz

Lan benetan nekeza da Sabin Salaberriren ibilbide luze eta oparoa lerro batzuetan biltzea. Txiki-txikitatik musikak erakarrira, Aramaion hasi zen abesbatzan eta bertan jaso zituen lehen piano eskolak. Handik, gaztetan Gasteiza seminariora joan eta musika hezkuntzarekin jarraitu zuen Sabinekin.

Seminarioan Schola Cantorum abesbatzaren zuzendari izan zen eta ondoren Araba abesbatzako gidaritza hartu zuen bere gain aramaioarrak; aldi berean, musika sorkuntza eta euskal kantu herrikoiak berpizteko grinari heldu zion (harenak dira *Gabonetako hiru kantak*, *Gora Araba*, *Guridi*, *ehun urte* eta *Mendirik mendi*), euskal abesbatzen kantu-zerrendetan falta ez direnak). Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioren zuzendari izan da urtetan, egungo euskal musikari askoren irakasle izanda. Egindako lana ikusita, 1996. urtean San Fernandoko Arte Ederren Akademiako kide izendatu zuten. Aspertzeko inolako asmo barik, erretiroak ez du bere bokaziotik urrunduz abesbatzetan, sorkuntzan eta lagunak eskatzen dioten edozertan kolaboratzeko prest dago-eta oraindik Sabin.

## Pailazoak, zinema eta rock kontzertua dira hil hasierako eskaintzak

*San Martin eta San Migel jaien eskutik kultura ekintza asko izango dira datozen asteotan Oñatin, Bergaran eta Aretxabaletan*

Leire Kortabarria

Udako oporren ostean, iraileko kultura agendak betetzen doaz, ibarreko herriak euren egitarauak prestatzen doazen neurrian. Hala, Bergarak, Arrasate eta Oñatik aurkeztu dituzte eurenak. Bergararen kasuan, iraileko ekintza asko San Martin jaiekin lotuta datoz; Oñatin eta Aretxabaletan gauza bera gertatzen da San Migel jaiekin.

Egunotan, umeendako antzerkia izango da: Kiki, Moko eta Flax pailazoek emanaldia egingo dute hilaren 8an Bergaran, Munibe plazan, 18:00etan, Jardun elkarteak antolatuta. Egunotan ere zabalik dago Aroztegi aretoan argaz-

ki, jantzi eta bideo erakusketa bat, Sahararen gainekoa; Bubi-sheer elkarteak antolatuta du.

### ZINEMA ARRASATEN

Arrasateko kultura eskaintzan, berriz, zinema da nagusi: hilaren 8an bukatuko dira Monterron parkeko aire zabaleko zinema saioak, *Devuélveme mi suerte* filmarekin, eta hurrengo astetik aurrera Amaia antzokian izango da berriz zinema, egubakoitzetik astelehenera; eta domeketan, umeendako emanaldiak ere.

Horrez gain, eskaintza bitxi bat ere badago Arrasaten: Mutrikuko Goizeko Izarra antzerki talde ez profesionalak emanaldia egingo du. Irailaren 23an izango da hori.

Oñatiri dagokionez, Klean udako aire zabaleko egitarauak kontzertu gehiago ekarriko ditu: datorren zapatuan, hilak 9, Randy punk-rock talde suediarak joko du gaztelekuan, eta hilaren 23an, Hotdogs taldearen txanda izango da. Oñatiko jaiak hilaren 16an hasiko dira, eta horren eskutik etorriko dira hileko beste ekintzak.

## Labur

### Debagoieneko filmak emango dituzte Donostiako Zinemaldian

Zinemaldiko Zuzendari Berrien sailean lehiatuko dira *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*, Mireia Gabilondo bergararrak zuzendutako filma; eta Koldo Serra bilbotarraren *Bosque de sombras*, Elgetan filmatutako lana. Horrez gain, Jose Mari Gonzalez *Gonza* oñatiarraren *Txorixak galduta egozian* dokumentala irailaren 27an emango dute.

Arrasaten, irailaren 29an estreinatuko dute *Txorixak galduta egozian* eta hilaren 29an, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*.

### Kooperatibismoaren gaineko eskulturen maketak, erakusketa

MCCren 50. urteurrena dela eta, balio kooperatiboak islatzeko eskultura aukeratzeko lehiaketa deitu zuen Arrasateko Udalak. Orain, jaso dituzten lan guztien maketak erakusketa ipiniko dituzte. Irailaren 12tik 22ra bitartean izango da erakusketa, Monterronen, 18:00etatik 20:00etara. Publikoak iritzia eman ahal izango du.

Lehiaketaren helburuak dira eskualdeko jarduera Arrasatekin lotzea; kooperatiben berrikuntzaren ideia sormenarekin lotzea; eta kooperatibei hedapena eta laguntza ematea.

### Eurovision lehiaketa irabazi zuen taldea, Lordi, Bergaran izango da

Lordik, Eurovision musika lehiaketa irabazi zuen talde finlandiarak, Bergarako Jam aretoan joko du urriaren 20an. Han, *The Arockalypse* diskoko abestiak joko dituzte, tartean Eurovisionen jo zuten *Hard rock Hallelujah* abesti ezaguna.

Munstro estiloko estetika bitxiarengatik ere egin da ezagun boskote hori; hala ere, euren musika pop estilotik urruti ez dagoela esan dute musika kritikariek. Beldurrezko filmetako eszenaratzeara eta piroteknia ikusgarriak erabiltzen dituzte.

## Hitzorduk



**'BIDEAK' IKUSKIZUNA ESTREINATUKO DU ESQUALDEAN AUKERAN TALDEAK** | Elgetan izango da emanaldia, Espaloian, hilaren 29an, eta txartelak salgai ipini dituzte dagoeneko

Aukeran dantza taldeak *Bideak* izeneko lana estreinatuko du Elgetan. Debagoieneko estreinaldia izango da. Espaloia antzokian egingo dute emanaldia, hilaren 29an, egubakoitza, 22:30ean. Txartelak salgai ipini dituzte dagoeneko Espaloia antzokian bertan, ohiko salneurrietan.

Edu Muruamendiaratz bergararra da taldeko zuzendaria eta koreografoa, eta baita dantzarietako bat ere. Haren esanetan, *Bideak* "taldearen ibilbidearen goren maila da". Lana uztailaren 13an estreinatu zuten, Donostian, eta publiko eta kritika arrakasta handia izan ditu.

### ZINEMA I

• **Superman, el regreso** filma emango dute Oñatin

Gaur, astelehena, emango dute film hori kultura etxean, 19:30ean.

• **Los educadores** filma ikusteko aukera Elgetan

Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

### LEHIAKETAK I

• **Film laburren lehiaketa antolatu dute Bergaran**

I. film laburren lehiaketa antolatu du Udalak, Debagoienean bizi den edozeinendako. Lanak bakarka edo taldeka aurkez daitezke irailaren 15era arte, kultura etxean. 300 eta 250 euroko sari bana dago, eta bergarar onenarendako 100 eurokoa. Argibide gehiagorako, jo [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunera edo deitu 943 77 91 60 telefonora.

• **Gomendatzen Dizut... sariketa zabalik dago**

Gomendatzen Dizut... lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago, eta antolatzailen, Arrasateko eta Bergarako gazte informazio zerbitzuen esanetan, uda da parte hartzeko sasoirik onena. Edozein oporralditako gomendioak eskatzen dituzte. Argibide gehiagorako, jo, [www.aizue.com](http://www.aizue.com) blogera.

• **Udako postalen lehiaketa deitu dute Aramaion**

Udako oporretako postalen lehiaketa deitu du Txirritola euskara elkarteak. Irailaren 15era arte parte har daiteke, postalak kultura etxera bidalita, Nardeaga kalera. Saria da baserri turismo baten asteburua.

• **II. Danbaka musika lehiaketan parte hartzeko**

Goienak antolatutako II. Danbaka musika lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago irailaren 19ra arte. Debagoieneko talde edo bakarlariek hiru jatorrizko abesti, biografia bat, bi argazki eta harremanetarako kontaktua bidali behar dituzte Arrasateko 132 posta-kutxara edo [danbaka@danbaka.com](mailto:danbaka@danbaka.com) helbidera. Argibideak: [www.danbaka.com](http://www.danbaka.com).

### ANTZERKIA I

• **'Star trip' antzezlanaren egingo du Yllana taldeak**

Ohiko umore garratzarekin eta ironiarekin, Yllana taldeak *Star trip* ikuskizuna egingo du irailaren 22an, egubakoitza, Espaloia antzokian. Sarrerak salgai daude dagoeneko antzokian bertan. Antzezlari horretako protagonistak astronauta batzuk dira, misio batekin: bizitza adimentsua aurkitzea unibertsoan... eta berau akabatzea.

• **'Emetik' bertso-kabareta izango da Arrasaten**

*Emetik* bertso-kabareta egingo dute hilaren 22an, egubakoitza, Udaletxe plazan, 19:00etan, Emakume Txokoaren ikastaroa inauguratzeko. Onintza Enbeita, Iratxe Ibarra eta Oihane Perea bertsolariak dira protagonistak.

### MUSIKA I

• **Kepa Junkerak kontzertua egingo du Arrasaten**

Kepa Junkerak *Hin* izeneko disko berria aurkeztuko du hilaren 16an, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan. Txartelak salgai daude dagoeneko Servikutxa kutxazainetan, 943 00 12 00 telefonoan edo [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) webgunean. Bidaia-koaderno baten moduan, istorio kilikagarriak eta sentsazio bakanak biltzen ditu disko horrek.

• **Bergarako San Martin jaietan, techno jaialdiak**

San Martin jaietarako, techno estiloko musika emanaldiak antolatu ditu Jam aretoak. Irailaren 16an, zapatua, 22:00etan, Technimal II jaia izango da, eta Techno aretoan eta Minimal aretoan hainbat disko-jartzaile arituko dira. Bigarren jaialdia *after hours* tankerakoa izango da, hurrengo eguneko goizeko hamarretan, eta hiru disko-jartzailek giroa dute.



## Zorion agurrak



ARRASATE  
**Arantzazu Lagunilla**  
Abuztuaren 26an.  
Zorionak, lankideen partetik.



BERGARA  
**Markel Arzelus**  
Abuztuaren 22an,  
3 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



BERGARA  
**Ane Kortabarria**  
Abuztuaren 29an,  
5 urte. Zorionak eta muxu bat, Gorka eta etxeko guztien partetik.



BERGARA  
**Miren Ruiz de Eginola**  
Irailaren 1ean,  
2 urte. Urte askotarako. Etxeko guztien partetik.



BERGARA  
**Maren Unamuno**  
Irailaren 3an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



BERGARA  
**Unax Etxaniz**  
Irailaren 3an, 2 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik, eta muxu handi bat.



BERGARA  
**Ane Azkarate**  
Irailaren 4an,  
5 urte. Urte askotarako! Etxekoak; bereziki Uxuek.



BERGARA  
**Ziortza Ibaibarriaga**  
Irailaren 7an,  
4 urte. Zorionak, etxeko guztien eta lagunen partetik.



BERGARA  
**Alex Azkarate**  
Irailaren 8an, urtebetetzea. Zorionak, *Juso!* Lankideen partetik.



ESKORIATZA  
**Arane Zubia**  
Abuztuaren 24an,  
7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA  
**Julen Gutierrez**  
Abuztuaren 29an,  
urtebete. Zorionak, Piku, familiako guztien partetik.



## Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK** egunero ematen dizu aukera hori.

**Bidali eskaria:**  
[irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com)  
helbidera edo deitu  
943 71 17 31 telefonora.


Egunero,  
zorion agurren tarte  
**ARRASATE IRRATIAN**

**FM107.7**

**ARRASATE IRRATIA**

## Hildakoak

**Juan Gisasola Araiztegi** | Bergaran, irailaren 2an. 72 urte.




**ESKELAK**  
ASTELEHENKO  
GOIENKARIAN

85 euro  
**943 25 05 02**

ESKER ONA  
**Roman Garitano Zurutuza**

Bergaran hil zen 2006ko uztailaren 19an, 68 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko irailaren 4an.

## Jaiotakoak



**Haritz Arregi Campa**  
Aretxabaleta • 3,550 Kg.  
Abuztuaren 23a. Gurasoak: Edith (Aretxabaleta) eta Anton (Arrasate). Argazkian aitarekin.



**Mikel Calzon Perea**  
Aretxabaleta • 3,740 Kg.  
Abuztuaren 26a. Gurasoak: Eider (Eskoriatza) eta Jon (Eskoriatza). Argazkian aitarekin.



**Markel Aranburu Zubia**  
Arrasate • 2,760 Kg. Abuztuaren 28a. Gurasoak: Oneida (Aretxabaleta) eta Josu (Oñati). Argazkian amarekin.



**Elene Mendizabal Fernandez**  
Bergara • 2,900 Kg. Abuztuaren 30a. Gurasoak: Eli (Bergara) eta Gurutz (Bergara). Argazkian Ane ahizparekin.



**Izar Altube Lorda**  
Antzuola • Abuztuaren 31a.  
Gurasoak: Sara (Antzuola) eta Manu (Antzuola). Argazkian umea aitarekin.

**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Uda giroan' | 10:00

**Goio Eskibeli egindako elkarrizketa**

Biatoristen bikario nagusi izendatu dute Goio Eskibel aretxabaletarra. Atzo karguaren zina egin zuen Frantziako Vourles herrian. Hala, hurrengo sei urteak Erroman emango ditu. Hari egindako elkarrizketa, 11:10ean.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Eguerdi saioa' | 12:00

**Oporretako ezusteen gainean berbetan**

Gaurko irratsaioan, 12:15ak aldera, oporretako ezusteen gainean ariko da Miren Urkiola: Galizian sua itzaltzen ibilitako Imanol Artola Diputazioko basozainarekin eta Londresko aireportuko nahasmena bizi izan zuen Marta Leturiarekin.

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 11:00

**Memoria historikoaren legea aztergai**

**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 11:40

**Kepa Junkeraren diskoaren aurkezpena**

**Herri Irratia**

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

**Ordiziako Euskal Jai Egunaren berri**

**GOITB programazioa**

Astelehena, 4




**Debagoieneko albisteak 20:45**

Bailaran gertatutakoa jarraitzeko aukera duzue GOITBko albistegietan. Goiatz Aranak eta Julen Iriondok aurkeztuta.

- 07:55 Emisio hasiera.
- 08:00 Marrazki bizidunak bilduma.
- 08:50 Klip@k.
- 11:00 Euskal Herria Oinez. Aizkorri eta Udalatx.
- 11:30 Eltze beroa.
- 12:00 Elkartasun bideak.
- 12:30 Ilunpean.
- 13:00 Berbaire.
- 14:00 Debarri.
- 15:00 Marrazki bizidunak. Snorkeldarrak
- 16:30 Danbaka.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Jazz.
- 19:30 Teknopolis.
- 20:00 Ilunpean.
- 20:30 Didjeridu.
- 22:30 Berbaire.
- 00:00 MKT.
- 00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 5




**'Berbaire': gizarte eta politika gaiak 20:00**

Berbaire saioak denboraldi berriari ekingo dio. Ohikoa denez, Gorka Etxabe aurkezleak eta gonbidatuek eguneroko gaiak jorratuko dituzte.

- 07:55 Emisio hasiera.
- 08:00 Marrazki bizidunak bilduma.
- 11:00 Eltze beroa.
- 11:30 Danbaka.
- 14:30 Jaiak 2006. Lesaka.
- 15:00 Euskal Herria Oinez.
- 15:30 Ilunpean.
- 16:00 Marrazki bizidunak. Card Sakura eta Snorkeldarrak.
- 17:30 Debarri.
- 18:30 Elkartasun bideak.
- 19:00 Didjeridu.
- 19:30 Behazulo.
- 20:00 Berbaire.
- 22:00 Elkartasun bideak.
- 22:30 Didjeridu.
- 23:00 Eltze beroa.
- 23:30 Asteakoak.
- 23:45 Emisio amaiera.

Eguaztena, 6



**Marrazki bizidunak gatzetxoendako 13:20 eta 20:15**

Card Sakura, Snorkeldarrak eta Bihurkorrek marrazki bizidunekin gozatzeko aukera duzue eguneroko GOITBn, eguerdian eta iluntzean.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Didjeridu.
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Sustraiak.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak.
- 20:45 Berria.
- 21:15 Sustraiak.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Sustraiak.
- 22:45 Berria.
- 23:45 Gaurkoak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 7



**Maria Urtzelai aktorea 'Didjeridu' saioan 22:15**

Amagoia Lasagabaster kazetariak Maria Urtzelai aktore bergararrari eginiko elkarrizketa ikusteko aukera izango da gaurko saioan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Klip@k.
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Sustraiak.
- 15:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:45 Iparrorratza.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazkiak.
- 20:45 Berria.
- 21:15 Elkartasun bideak.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Berria.
- 23:15 Harmailatik.
- 23:45 Albisteak.
- 23:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 8



**Nazioarteko dantza ikuskizuna 21:15**

Irungo Eraiki elkarteak urtero egiten du nazioarteko dantza jaialdia. Bortziritako eskualdean antolatzen dute, hango Udalen laguntzarekin.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Erreportaia.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Jazz.
- 19:45 Albisteak. Julen Iriondorekin.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berria.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Albisteak. Julen Iriondorekin.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berria. Goiatz Arana.
- 23:15 Didjeridu.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Emisio amaiera.

**Gasherbrum II**

**SAIO BEREZIA**

Mikel Sasiain aretxabaletarrarekin eta Josu Juan Llodio arrasatearrarekin

Gaur, irailak 4, 22:15ean  
Julen Iriondok aurkeztuta



Irailaren 4a: 097 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, irailak 4, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidetza kuota:

**24 euro**  
2006 bukaera harte.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Mila Elexpuru Arregi (Bergara)
- Iñigo Urtubi Egidazu (Arrasate)



Irailaren 11ko sariak



**DONOSTIAKO  
AQUARIUMa**  
bisitatzeko bi gonbidapen.  
(saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



## Hamarrekoa

IÑAKI BERISTAIN | ARANTZAZUKO FRAIDEA

### “Oporrak urrutiko hondartza batean igaro ditut, telefono barik eta erloju barik”

Arantzazu Ezkibel

**1. Zer egingo zenue Arantzazun orain dela 500 urte?**  
Gaur egiten dugun gauza bera egingo nuke: erromesentzat lekua egokitu. Garai hartako jendeari beharra ikusten zaion neurriko harrera-lekua egingo nuke; alegia, Arantzazu bilgune bihurtu.

**2. Eta 500 urte barru jaiko bazina?** Nik uste dut Arantzazu gauza bere-rako dagoela bai lehen eta bai gero ere. Gizakiak galdera berberak izango ditu hemendik 500 urtera eta galdera horiei bidea bilatu beharko zaie.

**3. Izaten duzue oporrik fraideok? Nola pasatu dituzue?** Hondartza batean, hemendik urruti samar, telefono barik eta erloju barik. Nire oporrak lasai-lasai egoteko izaten dira.

**4. Getafeko familia batek Arantzazun hartu du ostatu abuztuko 20 egunetan, udako oporrak pasatzeko.** Ez nekien ezer. Nik uste dut hiri handietako jende asko etortzen dela mendira lasaitasun bila.

**5. Organo jolea, telebista-ko aurkezlea, aldizkari-zuzendaria, idazlea... Polifazetikoa izan behar bizi irauteko?** Nik uste dut bi modu daukela bizi izateko: lasai bizi nahi baduzu, hobe duzu zerbaitetan espezialista izan. Baina niri, bizitzan, gauza askotara dedi-katzea egokitu zait eta guztiak gaizki egiten ditut.

**6. Irudia zaintzen duzu?** Ez, batere ez. Irudia zaindu beharko nuke, osasunagatik batez ere. Baina denbora faltagatik ez dut behar besteko kirolrik egiten.

**7. Bazkari edo afari askotara gonbidatzen zaituzte?** Bai, gonbidatu egiten naute, baina gero eta gutxiagotara joaten naiz. Lehen, iluntzeetan, erraz ateratzen nintzen etxetik, baina orain kosta egiten zait. Adinagatik-edo, bizitzan lasaitu egin naiz.

**8. Bederatziurrenean sekulako giroa egoten ei da Arantzazun. Tokirik gelditzen da?** Nik uste dut dena hartuta dagoela, entzun dudagatik, behintzat. Hala ere, toki bakarren bat egon daiteke nonbaiten.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Iñaki Beristain Errezilgoa da eta 1958an etorri zen lehenengoz Arantzazura, 11 urterekin. Hura etorri eta hurrengo urteetan beste bi anaia etorri zitzaizkion, baina oraindik fraide geratzen den bakarra da Iñaki. Arantzazura etorri zenean 100 fraide inguru ei zeuden. Gaur, ordea, 36 besterik ez da gelditzen. Euskal kulturaren mugimenduan ibili da beti lanean.

**9. Noiz jokatu duzu azkeneko pilotan Arantzazuko frontoian?** Ene! Urte asko dira azkeneko jokatu nuela pilotan. Gainera, orain, badakizunez, ez dago frontoirik.

**10. Nola ikusten da euskal kulturaren mugimendua goitik?** Nik uste dut euskal kultura bizi dela, baina kultura orokor baten barruan diharduela lanean.



### Biharamuna

Marijo Deogracias

## Berriz ere bueltan

Udako oporrak amaituta depresio sasoiari hasi dugu, baina ez etsi; gutxiago geratzen zaigu neguak zurituko digun azala eguzkitan erretzeko berriz ere eta urte osoan zain izango dugun paradisu partikularrera joateko. Nirea aurten Menorka izan da, astebetetz. Gutxitxo nire gusturako, baina ni hara heldu nintzen egunean Iñaki Gabilondo ikusi nuen bueltako hegazkina hartzeko zain. Barre txiki batekin zidan ihes (intentzio txarrik ez zegoen, baina bazueta gure iratxo gaiztoak gurekin dela gogorarazten digu).

Berriz bueltan gara eta badi-rudi gure politikariek gogoz hasi-kodutela ikasturtea. EAJren zatiketaren urteurrena bete da eta EAko hainbatek orduan gertatutakoa eszenifikatu dute asteon. Esan didatenez Iñaki Galdosek ez du adierazpenik egin nahi izan Goienkaria-n; ez zait harritzen, datorkiona ez da-eta panorama erraza txantxikuarrarentzako.

Gaur, baina, Madrilerara begira egon behar berriz ere; 18/98an auziperatuek euren kalbario partikularrari ekin diote. Maite Aristegik iragarri du mozioak aurkeztuko dituztela udaletxeetan. Argi dago: abuztuko oporrak ez dira panazea inorendako; uztaileko arazoak zain ditugu irailean eta gustatu ala ez, ekin egin behar lanari berriz ere. Tira, Aranbururi esker, Realak ez du galdu Athleticen kontra (gaitz erdi) eta saskibaloizalek mundial bikaina ikusteko aukera izan dute. Pau Gasol eta bere taldekideek futbolak espainiarrei inoiz eman ez dien oparia egin diete. Norbait poztuko zen!

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

**5767** zembakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZA**

**smsoinu**

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**SOINUAK ERREALAK (2 SMS)**  
Abestiaren izena | KODEA

1,2,3,4... Real!!! | REAL  
Alboka | ALBOKA  
Athletic Iuep!!! | IEUP  
Buztan bertsoa | BERTSO  
Hartu... Aitarek ta semea... | AITAREN  
Hartu... Ansar | ANSAR  
Hartu... Argentinarra | ARGEN  
Hartu... Mexikarra | MEXIKO  
Hartu... Miamoi! | MIAMOI  
Independentzia! | INDEPENDEN  
Irintzia | IRRINTZI  
Jotake irabazi arte! | JOTAKE  
Milazul (pilota) | MILAZU  
Suprinua | SUPRINU  
Tobera | TOBERA  
Txalaparta | TXALAPA  
Txanbela | TXANBERA  
Txoort | TXOTX

**LOGOAK (SMS 1)**  
KODEA

DEPOR. IZENA. ZENBAKIA | OSAUNA. IZENA. ZENBAKIA

ALONSO | KRUXAGA  
BILBAO. IZENA. ZENBAKIA | REAL. IZENA. ZENBAKIA

ETXEBERRIA | ARANBURU

ANOETA1 | MENDI2

ARCO | SADARI

IPURUA | EIBARPOOL

BELAK | ZORIB | IKURRIB | POPATIK1 | AZKORAK | ADARIAK

ZORIR | ZORIR | KALABERA1 | POPATIK2 | EGUZKILORE3 | ELORAN

TOPA | TITULUA | MUSKARIA | SATANAS | ARRANAK | IDIAK

**OHARRAK**

1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)  
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema aktibatuta izatea. GPS sistema aktibatzeko, jarraitu zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki Jaisiera bekarik ordaindu behariko duzu. Kasu guztietan deia eta GPS sistema altxatu behar da.

\* Euskaratutako: 900 94 02 00 telefonora. / \* Vodafone: deitu 123-ra. / \* Movistar: deitu 809-ra.

3. **ZALANTZAK:** Ez duzu zailtasunik izango, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN ➡ [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)